



Iturria: *Piarres Larzabalen idazlanak (VI)*, Piarres Larzabal
(Piarres Xarrittonen edizioa). Elkar, 1996.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LarzabalHintzaldi.htm>

HITZALDI ETA MINTZALDI

Piarres Larzabal

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,
eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

ESKUARAZKO TEATROA: BORDALEKO IXTUDIANTEI EMAN MINTZALDIA

Eskual-Herriak, hobeki Xuberoak, badauka bere pastorekin, teatro bat osoki gurea, nehun ez bezalakoa, eta baitezpada beiratu behar duguna, berdin pixka bat oraikotzen badugu ere.

Bainan, pastorez bertzalde, badugu Eskual-Herrian, eskuarazko teatro bat, barnetan emaiten dena, eta jada lehen urratsetarik jalia, gotortua.

Badira diotenak: Eskualduna ez daitakela teatrolari, jitez ez delakotz zalapart eta berduratua, nola baitira Italiano eta beste, bainan delakotz izil eta sentimenduen agertzeko herabe.

Bainan, ez dugu ahantzi behar Eskualduna gizon dela, eta beraz, gizon batek izan dezazken sentimenduen konprenikor, ez izanagatik bera heien ibilari... Eskualdunak ere baditu bere barneko gora-beherak, eta dazkienen nornahiri agertzeko uzkur bada, bizkitartean, bere gogoen kanporatzeko, hala beharrez badu talendua.

ZAHAR MOLDE

Teatro izkiriozkorik eta joka-lekurik ez zen denboran, gure zaharrek beti izan dute beren gisako teatroa... Alabainan ez ote dira teatro-aire: Galarrots eta Xaribariak, Tobera eta Maskaradak, Ihauterietako Bakus eta Zantantzarrak, Olentzero eta Amona mantagorri, pestetan muntatzen diren Hartza-joko eta Ziminokeriak?



Xuberoan, izan baitute betitik goixtiar aire bat, hor gaindi gertatu izan diren xaribari batzu, izkirioz ezarriak eta beiratuak, dira gure teatroki lehen lanak.

Ez dakigu beti, noren trufatzeko moldatu zituzten delako xaribariak, baina, egin arazi bide dute irri karkaila frango, eta ere metatu errabia eta pena asko.

Huna, xaribari horietarik ezagutuenean deitzioneak:

- 1° ARDEATINA et LUDOVIA
- 2° BELCADER, roi d'Afrique
- 3° BALA et VILOTA
- 4° ÇABALÇAR et sa famille
- 5° BONBANA et CHILLO-BERDE
- 6° CANICO et BELTCHITINE
- 7° CHIVEROUA et MARCELINE
- 8° Le débitant d'eau de vie
- 9° JOANIK hobe et ARLAITA
- 10° LERAT et RUCILER
- 11° MALOUS et MALKULINA
- 12° MEHALZU et VENUS
- 13° Petit Jean et PETIK HUNI
- 14° PETITUN et PETIK HUNI
- 15° PEYROT et CHARROT
- 16° PEANTA et ELEONORE
- 17° POLOCHINELLE
- 18° RECOQUILLARD et ARIEDER
- 19° SATURNE et VENUS
- 20° THERESE
- 21° TUDUK

HASTAPEN

Hemezortzigarren mendean, «SOCIEDAD DE 405 AMIGOS DEL PAIS» deitu batasunak, hartu zuen xedea, zerbeit eskuarazko teatroki edo antzerki muntatzeko.

Xavier Munibe Peñafloida-k, 1764 garren urtean, bi ikusgarri atera zituen, Bat: «El borraeho burlado», erdi español eta erdi eskuaraz, kantu eta irrizko obra. Bertzea: «Gabon saria», baserria kantuz dariona.

Horiatarik landa, ehun urte iraun behar zuen loeria batek jo zuen gure teatroa.

Teatro hori, hunarat ihesi etorri Karlixtek zuten berritz piztu, Karlixtek bazuten Ziburu Agorretenean, bil-toki bat, «EL TRUENO» deitua. Hor eman zuten, 1876an, «Iriyarena» titredun, erdi espainolez eta erdi eskuarazko obra. Hori bera, bi urteren buruan emana izan zen Donostiako teatrotoki handian.

Eskuarazko teatroaren aita, erran ditake Marcelino SOROA gipuzkoarra izan dela... Hau, karlixt iheslari Zokoan egon ondoan, berritz etxerat sartu zen. Eta han izkiriatu zituen: Gabon, Urrutiko lntxaurreak, Anton Kaiku, Au Ostaturia, Alkate berria, eta bertze asko lan.

Soroak, «Anton Kaiku» Victor Hugo eta Mistral bi frantses idazleeri, agurrezko present gisa igorri zioten. Ez dakigu zer errepusta izan zuen bi frantsesenganik, izan bazuen ere.

Soroaz geroz, eta bereziki zoin nausi partideri esker, teatroak egin du bide mendiz bertzaldean. Baina hango teatro xehetasunetan ez naiz sartuko, baitute hangoek hortaz asko argiraturik.

Huna indiko teatroa dut bakarrik aipatuko, eta hau ere pastoralak, kantuzko eta dantzazko ikusgailuak, bazterrerat utzirik.

LAN DORPEA

Aitor dut, uste ez nintuen traba batzuk ene lana zaildu daulatela... Beha ba: obra berak kausitu ditut bi titrekin, edo bi obra titre batekin. Obrak kausitu ditut laburtuak, luzatuak edo nahastekatuak. Obra berarentzat agertu zauzkit bi izkiriatzale, bat bertzea bezin zintzo eta zorrotz...

Orotarat bildu ditut, 150 bat teatro obra luze eta labur. Hogoi eta hamar bat izkiriatzaleen lanak dira.

Hogoi eta hamar urtez, teatro lan horiek emanak izan dira 68 hiri eta herrixketan. Eskual-Herrian, baina ere hemendik kanpo, hola nola Bordale eta Parisen.

Ene miatzeen arabera, lehen ikusgarriak Senperen eta Hazparden eman ziren 1922an. Zertako ez lehenago? Ez zelakotz deus emaitekorik, ez eta ere teatro egiteko barnerik, gure herrietan.



Zerk ba lotarazi zituen lehen teatrolariak sail berriari? Eskuararen amodioak ote? Doi bat beharbada, bainan gehiago, Eskualdunen amodioak.

Ikusiz zinemaren zabaltzeak eta munduaren kurritzeak iretsi behar zutela eskualdunagoa, Eskualduneri nahi izan zioten konfientzia beren baitan eman, bertzeak bertze, teatroz ere eta eskuaraz, mende berria jukatuz.

Ez da dudarik, orduko eskuarazko teatroak, moda berriak kitzikatuz, heien on gaitzak agertuz, ibilpide laxoak trufatuz, hanitz Eskualdunen gogoak zuzendu dituela eta bide nahasietarik beiratu.

Geroztik gure teatroak hanitz gogo motetarat hegala zabaltu ditu, asko pentsamendu onen garraiari agertu da, eta zaut iduritzen, ongi handia egin duela ba eskuararen eta ba gogoeta sanoen alde.

TEATRO IZKIRIALARIAK

Nor izan diren! Baditake ez ditudan ororen izenak bildu, ez eta ere ororen lanak. Hasteko, hamar bat obra badauzkat, nehundik ez baitezaket zila norenak ditazken. Bainan, uzta aski nasaia eskuratu dut, gehientsuenen aipatzeko, oraiko eta gerokeak jakin dezaten.

HARISPE, Donibane-Lohitzundar apezak, 1886an agertu zuen «Karmela» titredun lana. Pertsuka egin eta neskatxa zerutiar baten bizia du kondatzen... Ez du funts handirik.

Jean BARBIER, Senpereko erretor zena nork ez du ezagutu? Apez lumalari gogorra, «Piarres» liburu eta «Eskualdun Kondairen» egilea, bertzeak bertze...

Ikusi ditut potretetan, 1922an ateraiak, haren lehen teatrolariak. Haren obrak deitzen dira:

Zubietako debrua, Kauserak edo kruxpetak, Sorginak, Xilintxa sorgina, Gauden eskualdun, Xerafina kukusuekin, Haurrik ez. (Hau bertze bi lagunekin izkiriatur).

Jean Barbier apezak bere teatroan, bihurtu izan da bereziki sineskeri xoxo eta eskualdunogarentzat galgarri ziren moderi.

Justin MIRANDE, jaun apez eliz-aintzindaria, Hazparneko apez-nausi ohia, bazinakitena gure teatrolari handienetarik bat dugula?

Bere lan guzien artetik, laketa zitaion, buruilaz Zalgizen pausan zelarik, ttrirritta eta xorien kantuen erdian pasaiatzea, eskuetan zituen Labiche eta Courteline frantses komedilari famatuen obrak...

Erdaldun horien mamia baliatuz, eskuarazko obra pollitenak eman dauzku:

Behorlegiko etxeko jaunak (La Cagnotte), Tentazionea, Bartolo auezko (Voyage de M. Perrichon), Larrondoko sorginak, Mikeldeiko ihiztariak, Traidorea, Aitatxi (edo: Amaño) (Courteline-etik), Martxelinaren errumatismak, Gitanoak, Xoxoak (edo: Bi ahizpak), Espos-geia (edo: Roxali), Geroa jakinki, Duxa.

Hamahiru obra hautaz, Mirande jaunak zafratu ditu asko ahulezia mota: Urgulua espantua, pisueria, sineste xoroak, amodio ergela eta bertze.

Predikutik zintzoki, eta teatro taulatik irriz, bainan beti ber apezlanari, ari izan da Mirande jauna.

Pierre LAFFITTE (edo ITHURRALDE). Jaun hau nor dugun aipatzea ez ahal du balio. Bainan nork daki, hamalau teatro-obren egilea dela, edo gehiagoren. Eta bitxikeria! Bertze aldiz aise ziztadun agertzen bada, teatro lanetan aldiz gogo zabaltzen eta gorapenetan alhatzen zaio... Baditu ba bere teatroan ere, denbora saminetako baazuza pikorrak, bainan maizago iduzki sano lañoak. Donibane-Lohizunen handiz emanak izan dira jaun hunen lanetarik multxo bat... Bertzeak bertze, izkiriatu izan ditu:

Sarea, Orratza, Merkatuan, Maritxu, San Frantses, Amerikanoa, Egiatzko argia, Mirikuan, Eskualdun jauntziak, Oiharzunak, Eguberri, Kalixtro zapetain, Ilargia, Madalena Larralde.

Paul GUILÇOU, jaun apezak nehork ez bezalako talendua du erdara ez bakarrik eskuaratzeko, bainan eskualduntzeko. Horren lanetarik multxo bat frantses eskuaratuak direla, nehork ez liru erran, hain baitira gure, hitzez eta funtsez.

Ene aldetik halako maiteagotasun bat banuke «Gizona» titratu, eman daukun lanarentzat. Hori da Job sainduaren alegiazko istorioa. Obra horrek lan handia luke tauletan jartzeko, bainan badu hats bat, azkar eta gorako sentimentuetarat, gogo altxatzen duena. Guilçou jaunak dauzku eman: Bi semeak, Bazko goizean, Idek atea, idek, Sendagin kaskoina, Gazte Seme galdua, Petan Miriku, Koropillo, azeri zaharra. Gizona, Nesken aldi, Bihotz apala (De La Sotatik).

Jean DIHARCE (Iratzeder edo Aita Xabier). Gizona alimale bat omen da aingeruz nahasia. Iratzeder jaunari gure Jainkoak aingerukitik nasaiki eman bide zion. Arrado da haren gogo lurtiar. Lurra zikin zaiola iduri luke. Xoria aldaxkan bezala, doidoia da noizean behinka lurrerutzen. Lanoetan barna, zeru zola arrasean, izarren artean hegaldaka ibiltzea zaio laketa.



Abatik, bainan lanxka gisa, gogoz apalago zonbait obra ere atera ditu.

Huna Iratzederren lanak:

Eguerri, Mortutik oihu, Itsasorat, Pasionea, Piztu zaiku, Apez, Maria eta kurutzeta, Zakalar, Arapaillu, Miss Mach, Iturrian, Tontoteiko hiru semeak.

Raymond IDIEDER. Ba. Ba. Hazparneko jaun apez-nausiak, herri berean bikari zelarik, irri onik jali-arazi du bere komediez, zafratzen zituela: Emazte kalakari, gizon diru gose, gazte «nor-naiz-ni» eta gainerateko.

Bortz obra baditugu jaun hunek emanak:

Urek sendatu, Panpale abila, Batistaren xantza, Xuritzetik xuritzerat, Felixiren testamenta.

LEON LEON jaun apezaz sinatua, ba nik, gogotik irakurtzen dudala! Ez du teatro obra luze luzerik izkiriatu Léon jaunak, bainan argitaratu dituenak dira oro «Jaun-findei-kotik». Arrallantak arinki, irri zaina kilikatzen dutela ez karkailaz, bainan lehunki.

Huna zer kausitu ditugun Léon jaunaren eskutik: Gure xokoan, Hauraren azken hitza, Maturinaren gapoinak, Tomas ezkongei, Mehete-giko nausia, Herriko besta biharamunian.

TELESFORO MONZON. Nahi duzue zerbait pollit, ezti, arin, zerbait bihotzaren goxakor, gogoaren altxakor, penen ahanzkor?

Maite ditutzue haur eta gazte garbiak, dantza eta kantu airosak, ibiltze lehunak?... Zoazte Monzonen teatrorat... Hunenak dira:

Harpeko bozkarioa, Ur garbi, Zurgin zaharra, Behorraren ostikoa.

Jean ELISSALDE, Zerbitzari jaun apezak, behingoan hunaindiko eskuararat itzuli zuen Ramuntxo deitu obra aipatua... Pena hartu zuen ikusiz Ramuntxoren emaztegaia komentuan kokatzen. Hortakotz, bere baitarik, Ramuntxori eman dio segida, Gaxuxa tiratuz... Ikusgarri hortan Gaxuxa du komentutik jalitzen eta ezkont-arazten Ramuntxorekin.

Bertzalde izkiriatu izan ditu: Mikolas, Bi gogorak, eta Oltzaberrian...

Azken obra hau, eguberrien ohoretan, Uztaritzen emana izan zen, eta han zirenek, diote, guti obra izan dela Eskual-Herrian, hain handizki emanik.

Mayi ELISSAGARAY, han dago bizi, Hazparne gaineko karrikan, mintza errexeta, gogo zorrotz maleziadun batez oro zilatzen ingurikatzen eta pisatzen dituela... Ezagun du bere obretarik, badakiela barneen berri. Bi obra ditugu hunenganik:

Maitexaren ezkontza, Ameriketako osaba.

M. de JAUREGUIBERRY anderea, eskualtzale suhar eta mintzako-rra nork ez du ezagutzen?

Atharratzek Hastoy jaunaren laguntzarekin, han et hemen, Xuberrun, eman dituzte zonbait teatro lan:

Mirakuilu bat, Zikoitza (Avare de Molière), Eskualdun jauntziak, eta ere panpinezko teatrotik eskuaraz (Marionnettes).

Andere HILLAUK, Baigorritik, eman dauzku: Egiatzko Eskualdunak, Bixi ala Ahuxki.

Eskuaraz direlako merrezimendua kausitzen diotegu, bainan horien funtsaz ez gira satifos, ondotik erranen baitugu zertako.

Dominique DUFAU, Senpereko jaun notaria, bazinakitena teatrolari zela? Baditu, gure ezagutian, bi lan moldatuak, askito finak:

Ettxeko Andere eta Gan etorri bat Senpererat.

Ernest BIDEGAIN, Pagolako jaun erreterak, Mugarren bikari zelarik, frantsesetik eskuararat apailatu du: Manez azeri (Fourberies de Sea-pin) obra...

Eman du ere: Uste gabeko jandarma, ikusgarri irrikin laburra.

Agian, ez zauku hortan geldituko, baitu talendu.

Aita JEAN-BAPTISTE, beneditanoak emanik, baditugu bi obra.

Harroki eta Organbide (bost gertalditakoa).

LOUSTAU. Donapaleutar jaunak egin zuen:

Aitor, Agaramontes eta Beamontesen hasarrea argitaratzen duen lana.

Anna CHARRITTON Hazpandarrak, eman dauku: Izariko zapeta, obra jostakina.

René OSPITAL, kontseilari jeneral gazteak izkiriatua: Arte-bide eta amodio, diru eta amodioaren arteko borroka darion buru-lana.

Domingo SOUBELET, jaun kalonjeak irri onik eginarazi du bere:

Xuriket-egile kalakariekin.

Dominique MOCOÇAIN, jaun kalonjeak ere: Elkorra eta Mutuarekin.

TTANPIK eina da: Katixaren pesta.

Jean OTEGUI-k: Hautsaren azpian.

J.-Bte ETCHEBERRY, Urruñeko jaun erreterak ere badu berea: Tzarrak, xoxoak eta abilak.

Jean-Pierre SOUDRE, Senpertar mutil gazteak izkiriatu zuen: Manexen tratua.

Etienne SALABERRY, jaun apezak, arrunt oraiko modan apailaturik, eman zuen: San Frantses Xabierekoa.



Martin SALDUMBIDE, Hiriburuko jaun erretorak, asko lan ibili du. Hazparnen bikari zelarik... Haren lumatik da:

Senhartegiko bi mutxurdinak.

DON BERNARDOK, Itsasun, eman zuen bere: Paxionea.

Pierre LARZABAL apezak agertu dituen obra larrienak dira:

Irri eta Nigar, Bazkari hauta, Kontrabandixtak, Merkatutik, Lau donadoak, Amerikanoaren ilobak, Jaun kaputxin, Eiherazainaren astoa, Onjoketariak, Manez ohoretan, Okilornendi jaun mera, Gerl'urte, Ferrando, Xirixiti-Mirixiti, Dendarietan, Itaitzurak familian, Nork hil du Oyhanalde, Etxahun, Bordaxuri, Basabeltz, Hiru ziren, Portu-xoko, Hila espos.

Kanpoan emaitako, izkiriatu ditu: Lehen eta orai (Hazparnen emaitakako kabalkada handi bat), Kontrabandixtaren alaba, Maritxu.

BAKOTXARI BERE

Teatro obra izikiriataletarik erditsiak apezak ditugu. Gainerakotan, hiruentzat bi gizon eta bi emazte.

Ez da ahanzi behar, teatro izkiriattetik emaiterat badela bide eta nahiz, hanitz izkiriatale, ber denboran teatrolari gidari diren, bizkitartean badire ere, ez direnak izkiriatale eta laguntza handiena ekarri eta ekartzen diotenak teatroari.

Ez nauzke, hemen aipatu gabe, Arostéguy jaun apez zena, Donibane-Lohitzuneko Aramendy anderea, Mugarreko Malharin anderea, eta bertze hainbeste...

Bereziki, herri ttipietan teatro muntatzaleek badute merezimendu, tokiaren apailatzeko, muntaduren moldatzeko, jokalarien arrapatzeko eta haxean emaitako.

Horietako lana oraino nekeago da, katoliko obretan, ez baitira haizu mutil neskatsak teatroan nahasteka artzera, eta gidariek, jokalarien trebatez bertzalde, baitute heien arteko errespetuaren beiratzeko kargua.

HASTAPEN MOLDE

Abiadura guziek bezala, gure teatroaren abiadurak ere baditu bere on gaitzak. Pollit edo eder badira obra batzu, bertze batzu dira espalakoin eta deus guti.

Kasik dena obra irrikinak edo komediak dira, eta oraino ere, zonbait herritan uste dute jendek, teatroa irriz asetzeko dela bakarrik.

Hanitzen sujetak dira edo erlijionezko, edo ibiltze onen alde, edo gizon itzalen kontra.

Batzuek, ikusiak teatroz dituzte kondatzen ondolikako erakaspenik gabe.

Obra multzo bat dira erdaratik itzuliak edo apailatuak.

Arras guti da amodioa, lañoki eta zinez aipatua; beti kasik trufaz edo arras goratik... Gisa hortako sentimenduetan, Eskualdunak badu uzkur aire bat.

Buruzagien, edozoin izan ditenen, errespetua, beiratua da, gehienetan handizki.

Ikusliarrak maite du Eskual-Herrian, erakaspen bat dakarken obra, ez goregitik ez eta ere sobera larritik, guti «faxoin»-ekin emana, ahal bada zonbait kantuz eta dantzez pikatua.

Bada oraino zer egin, ikusliarren moldatzeko, ixilik egonarazteko, esku zarten gidatzeko, infrentzuz ez daiten irriz edo nigarrez lot erakusteko.

On laiteke, herrietan teatroa delarik argituxago direnak multza daiten, bereziki esku zarteri, merezituak direlarik, abiadura emaitako.

Ikusliar hanitz apendiz baitira, hola molda lezakete gostua.

LILITEIAN ASUNAK

Ez nauke aipatu gabe, gure hastapeneko teatro obra zonbait, eskuaraz izanagatik, eskuara eta eskualdungoarentzat kaltekor direla... Batzuen sujeta, haxe da: «Gora Frantzia! Gu frantses gira! Gure bertzaldeko anaiak, español zikin batzu dira, Eskualdunik ez da, baina frantses eta españolak gira oro...»

Ez zaut ontsa, amaizuna ama baino gorago ezarizea, haurrideri auzoa preferatzea, denborak bertzelaka dezakena betikotz. balitz bezala tinkatzea, garen gutia ihultzea.

Badira ere obrak eskualdun gisako batzu gaizotzat dauzkatena, ez direlakotz oraino «moden» jakintsun. Ez dakitelakotz ontsa frantsesa, edo telefonatzen edo treinetan ibiltzen eta holako. Gaizotzat dauzkate beren bizia otoitzari, xuxen ibiltzeari, errespetuari jarraikiz deramatenak. Ez dezagun heda xuxen ibiliaren ahalgea, baina ohorea. Gizontasuna ez da



arropez edo kanpo-ibilpidez, bainan barnez... Ene aitatxi amatxiek ez zuten frantsesa ikasi, ez ziren modako, bainan ezagutzen ditut modako hanitz ez baitituzte hek sekulan balioko. Trufa ditzagun mamiaren itzalak, eta ez axalaren zimelak.

Hirugarren huts bat atzemaiten diotet obra zonbaiteri, Eskuararen eta eskualdungoaren begirale nahi dute, bainan ahanzten dute bizia erreberrituz dela beirutzen. Eskualdun teatrorik ez dezakete molda, baizik eta gizon batzu xamarretan, emazte batzu zaia luzetan, pegar eta lehengo muble batzu, agertuz... Eskualdungoari xahar, zimur eta hil itxura bat ematen diote... Horieri beha dagon gazteak ez du zaharkeria horietan, eskualdungoa oraikotz eta gerokotz egina dela senditzen, bainan Moisen denborako gogoeria bat dela zaio iduritzen... Otoi, eskualduneri gehixago erakuts dezaguten nola diren, eta direnekin zer egin dezaket. Bizia lagun dezala teatroak, biziarekin kurrituz. Teatro ikusliarrak bete ditzagun ez bakarrik iragan ederraren penex, bainan egiteko denarentzat xede suharrez.

Egiazko begiraleak ez ditu bakarrik arropa usaia eta muble zaharrak begiratu behar, bainan ere zaharrek zuten biziaren indarra. Hek moldatu, orduko berriak, guk orai goratzen ditugun bezala, gure ondokoek izan dezatela, guk utziko diotegun zerbeit berri gozatzeko. Ez gaiten izan iraganaren baliatzaile bakarrik, bainan emendatzaile.

TEATROAREN GEROA

Teatroa ez dago hilik, hura baita tresnez urrunerat ikus eta entzun ditaiken obren zimendua.

Eskuarazko teatroa zabaldu behar ginuke, iragan denboraz gertatuak aipatuz munduko harat-hunatetan sartuz, bertzeen obrak gurekatuz, gureak bertzetarat hedatuz.

Bertzeenez argi gaiten eta gurez bertzeak argi ditzagun. Hortan da ongia eta zuzena.

Teatro mota guziak, kantatu, dantzatu eta gainerateko entsea ditzagun, gure ahalen arabera.

Hainbertze gizon hainbertze gogo nola baigira, bakotxak eman beza beretik, eta ikusliarrak ikus beza gustu duenetik.

On laiteke, taulez bertzalde teatroa hedatzen baginu dizkez eta radioaz.

Teatrolariak laguntzea merezi luteke, bereziki primakak heientzat muntatuz.

Primatze horien abiadura bat izan zen, 1949an Hazparneko kantoi-namenduan, 1950an, toki berean, sahets herriak barne sartuz, 1951an Eskual-Herri guzian.

Azken aldi huntan, 18 multzo zoin gehiagoka jokatu ziren. Taria eta asaldatze puska bat ibilirik, bereziki Donibane-Lohizunen, Hazpandarrek zuten ereman xapelgoa.

Hazparnen ere, Mayi Xoribit andereak polikopiatzen zituen teatro lanak eta teatrolariari prestatzen zerbeixka pagaraziz.

On laiteke holatsuko zerbeit zintzoki muntatzen baginu. Bertzenaz, inprimatu eskasian, gure lanak galduko baitira, jada batzu eginak diren bezala.

Batzuen ustekeria da, eskuarazko teatroak ez duela bererik emaiten. Ustekeria makurra da hori.

Frantsesezko teatroak, ez eskualde hautan ez du bererik emaiten, hemengo teatrolariak, hiritarik jin multzo famatuak, itotzen baitituzte. Bainan, eskuaraz ez dugu nehortaz lehertuak izaiteko lanjerik. Eskuaraz errege gare. Bertzalde eskuarazko obrek ez dute «droits d'auteur» deitu zerga pagatzerik.

Hortako, diot jokalaria lekuko, eskuarazko teatroa diruz abantailo-sago dela, hemengo multzoentzat, frantsesezkoa baino.

AZKEN HITZA

Gogoak egiten du gizona. Gogoaren aberatsak gizonaren balioa. Aberats dezagun teatroz ere, gure eta bertzeen gogoak.

Gure teatroa izan dadiela guretzat altxagarri. Bilakaraz gaitiala eskualdunago, gizonago, Jainkoaren haurrago. Aupa mutilak.

(Gure Herria, 1955, 367-378)



SALUTATZEN ZAUTUZTEGU, JAUN PERTSULARIAK!

Huna, Pertsularien egunean, Urruñako elizan, Larzabal jaun apezak eman prediku orroitzgarria.

HASTAPENA

Aitor bat zor dauzuet: Eskualdun bestetan, bihirik ez dautatela plazer egiten, nola pertsularien arteko partidek.

Eder dira pilota partidak, eder eskualdun dantza eta kantuak, baina horietan artzeko, ez da baitezpada Eskualdun izan behar... Ez eta ere horien konprenitzeko eta gozatzeko.

Bainan pertsutan artzeko, pertsuen segitzeko eta pisatzeko, nahi-t'ez behar da izan Eskualdun.

Beraz pertsularien partida duzu Eskualdun bakarren arteko besta bat. Eskualdun familia handiko, besta berezi bat. Eta hortako diot ekartzen besta huni, atxikimendu berezia.

ZER ERRAN PERTSULARIAZ?

Prediku alkitik zer erran ote ditaken pertsulariaz, gogoetan bainindagun, bururat etorri zait eskualdun kanta zahar bat:

«Bazterretik bazterrerat, oi munduaren zabala!
Ez dakienak erran liroke ni alegera naizela,
Hortzetan dizut irria eta bi begietan nigarra».

Kantu zahar horrek erakusten dauzkigu bi zabaldura: bat kanpokoa, munduaren zabala; bertzea barnekoa, gogo-bihotzen zabala.

Eta hori hala da, gutarik bakotxa baitan, eta gure inguruan kausi ditazke bi zabaldura... Bat gorpuzdun gauzena, eskuz hunki ditakena eta izar ditakena. Bertzea, arimako erabilpideena, gorputzeko begiz ikus ez ditakena, baina bere baitan, gutarik bakotzak senditzen duena.

BI ZABALDURA

Bi zabaldura horietan badituzu gizonak langile... Gizon batzu ari dituzu mundu zabalaren apaintzen eta edertzen, hala nola gure etxe eskualdun polliten altxatzen ari diren etxegintzaleak, edo xumeki, bere pentze inguruko berro berdintzen eta arintzen ari diren laborariak.

Zorigaitzez, badira ere gizonak, beren gerlako tresna higuinez, lurra- ren axala biluzten, uspetzen eta errausten dutenak.

Munduaren zabalean bezala, badira ere gizonak, beren lana derabil- katenak arimako eremu eta harat-hunatetan.

Hetarik bat duzu apezka, arima pizten baitu Jainkoaren biziaz, eta ari- mako bizi horren zaintzerat baita lehiatzen...

Apezka bertzelde, badituzu arimaren apaintzale eta goratzale diren langileak, kanporat agertzen dituzten etsenplu, sentimendu eta gogo ede- rreer esker... Eta horietarik bat duzu pertsularia... Pertsularia duzu beraz, apezka bezala, arimako gora-beheren ibiltzale.

PERTSULARIA ETA APEZA

Hortakotz, o pertsularia, orroitz zaite zure ofizioa ez dela edozoin, baina ohorezko kargu bat.

Jesusek erran baitu, munduko ontasun guziek baino gehiago balio duela arimak, zure kargua gorenetarik da, arimen moldatzaile denaz geroz.

Eta, badakigu, gure herrietan, apezari bezenbat pertsulariari daude idekiak jendeen beharriak... Lehenari bezenbat bigarrenari, herritarrek galdatzen diote, tokiko besten (ezkontza edo bertze) gorestea, tokiko ger- takarien aipatzea eta jukatzea.

Apezaren solasak bezain segur egingen du herriko itzulia, pertsularia- ren zirtoak edo koblak.

Apezarentzat bezala pertsulariarentzat, herritarrak jakin nahiko du, ean zer ateraldi egin duen.

Apezak bezala pertsulariak moldatzen ditu Eskualdunen arimak.



ETSENPLU ZONBAIT

Pertsulariaren erakaspenak, kantuaren bidez, jendeen gogoan sartuko, kokatuko dira, eta handik beren tenorean jaliko...

Zonbat haur, jazarkundean beren aitarentzat, ez dira lerratuko kantatzerat Bordaxuri galerianoaren pertsu hau?

«Ene aita da gizon kontsideratua
Semia galeretan du segurtatua
Nun nahi otoitzean belaunikatua
Saindu iduri debru madarikatua».

Oraiko gerla denbora nahasietan, zonbati ez zaizkote gogoratuko, Xenpelar gipuzkoar pertsulariaren lerro hau?

«Ez naiz ni gerraren zale,
Baizik pakiaren alde,
Zeñek nai duen galde
Berari tira alde.
Bala bat sartu buruan;
Aspertuko da orduan!»

Eta, zoin laborarik ez du kantatuko udazkenean, uzta eder bat bildu ondoan, bere zortiaz kontent, Elizanbururen pertsu hau?

«Badut andrea, badut semea,
Badut alaba ere nik.
Osasun ona batetik,
Ontasun aski bertzetik.
Zer behar dut gehiago nik?»

Eta gisa berean, batzuk goratik bertzek beheratik, batzuk amodioa dariotela, bertzek herra, batzuk ilundura, bertzek alegera, hainitz eskualdun arima kotsatu dituzte, onez ala... gaxtoz, Bilintxen pertsu lehun mailagarriek, Etxahunen ukaldi zorrotzek, Txirritaren zirto urragarriek, bertze hainbertzenek ere...

Ez dautzuet hemen aipatuko egun ohoratzen dugun Basurko zena, sarri izanen baituzue hartaz xehetasun... Hemen, otoitz dugu bakarrik egiten harentzat.

PERTSULARIA, NORBAIT ZIRA!

Beraz, pertsularia, orroitz zure presunak itzal handia egiten duela.

Orai beretik, zure pertsuak kantatuak ditazke ez bakarrik Eskual Herrian, baina berdin Nevada mendietako artzain xoletan, edo Afrika zolako soldadoteietan.

Eta ez zure presuna, ez zure pertsuak, ez dira hilen zurekin, baina aipatuak izanen dira luzaz, berdin menderen mende.

Ez nuke nehor gutitu nahi, baina segur naiz oraiko gizon aipatu batzu (jaun deputatu, auzapez eta bertze) aspaldian ahanziak izanen direlarik, oraino jendeen ezpainetan ibiliko direla gure artean ditugun pertsulari zonbaiten omenak eta erranak.

Zuen izena, zuen lana, jaun pertsulariak, dira iraunkor... Hortakotz ere, ekar diezotegun errespetu berezi bat.

Berrikitan irakurtzen nuen saindu batek ziona. Gure jujamenduko gaztigua ifernuan edo saria zeruan, ez direla baitezpada beti saindamendurik gabe egonen, baina denborarekin emenda ditazkela, guk hiltzean utzi obrek, gaizkia edo ongia emendatuko duten neurri berean... Gure obrek segituko gaituzte beraz, hil-eta ere.

Hortakotz, pertsulari adixkideak, ez dezagun ibil munduarentzat kalte eta guretzat pairamen laizteken pertsurik.

Utzirik bere gisa zikin eta gaxtakeriak, gure ahotik ez daitezela atera elhe altxagarri, zuzengarri, erakaspentsuak baizik, Jainkoari zor diogu pertsutako dohaina. Zor hori pagatuko diogu, horren fruituak berari eskainiz.

AZKEN HITZA

Agurrik beroena derautzuet gure artean aurkitzen zareten bertzaldeko haurrideri... Zuek eta guk familia bera egiten dugu... Sarri, denak betan, eskuz esku, denek maite dugun mintzaira ohoratzen dugula, joanen gira pertsularieri ospe egiterat.

* * *



Bai. Jaun Pertsulariak, egun hau zuena duzue... Jainkoak zauzte dohain bereziz beteak... Eskuetan dituzue botere handiak. Argi, gora, hunki eta josta gaitzala zuekin Jainkoaren graziak!
Salutatzen zauztegu, Jaun Pertsulariak!
Halabiz.

(Gure Herria, 1958, 91-94)

IKAS-EKO ERRIENT ETA ERRIENTSEI: ESKUAL TEATROAZ

NORAT ARI DEN!

Gure eskuarazko teatroak, hedamen eta arrakasta badu, zonbait urte hautan.

Bere kalitateeri esker, ikusliarrentzat da abusamendu aberatsgarri, gogoen altxagarri, eta... diru biltzeko molde.

Teatroa nahi bada bizi-arazi eta zabaldu, behar zaio laguntza ekarri.

Teatro-izkirialeri

Hauk ez dira baitezpada diruz lagundu behar... Gutik dute dirurik petrenitzen, beren lanaren sari... Horien plazerrik handiena da, agertu duten lana, tauletan emana izan dadien.

Horien lanak ez ditene gal, edo debalde izan, on litazke, balirezke, lan horien biltzeko eta hedatzeko arta har lezaketen presuna edo batasunak.

Teatro-gidari

Teatrokia ez da aski izkiriatzea... Behar da taulen gainean muntatu. Teatro-gidariak behar du izan norbait, jokolarien biltzeko eta heien arteko errespetua beiratzeko, behar du izan norbait ere bere jakitatez, jokolaria ontsa moldatzeko.

Teatro jokolarien gidatzeko jakintza duten presunak, arras guti dira Eskual-Herrian... Horietarik zonbaiten moldatzea, lan baitezpadakoa laiteke.

Teatro-jokolaria

Ikusgarri baten muntatzeko bada lan, behar da ibili buruhauste eta erakutsi borondate on.

Ikusgarri bat preparatu duen jokolari-taldeak badu beraz merezimendu.

Merezimendu horren saririk hoberena laiteke jokalarientzat, balute ahala beren ikusgarriaren emaitako, bederen bizpahiru-lau aldiz.

Batasun eta herrieri da laguntzea, hola izan dadien.

(P.L.)



ARBOTIN, ESKUALTZALEEN-BILTZARRAN, EMAN PREDIKUA

Eskualdun, fededun!

Erran-zahar huntaz dugu eginen egungo predikuaren mamia.

Eskualtzaleek, zer gogo ote dugu, gure urratsen zimendu?

Dut ihardetsiren: eskualtzale gira, girelakotz eskualdun... Eta, bietan eskualtzale gira, girelakotz fededun.

Eskualdungoa! Hitz hau, asko aberastasunen tapagailu da. Hunen pean ezartzen ditugu gure odola, gure ohidurak, gure mintzaira.

Aberastasan horietan lehena, denen erregina, ez da dudarik, dela gure eskuara.

Gure odola nahastekatuxea da. Naski, hobe bertzerik ez baita, hola azkarrago bilakatzen delakotz.

Gure pilota, musa, dantza eta gainerateko ohidurak, ez dira egun guzitako, ez eta oroendako, ez eta ere baitezpada, Eskualdun bakarrez eman ahalikako.

Gure mintzaira da bakarrik gure gurea, gure artekoa, egun guzitakoa, Eskualdun denena, gure etxekotasuna emaiten daukuna.

Eskualtzale naiz, fededungoa aipatu gabe ere, naizelakotz gizon eta Eskualdun.

Gizon bezala, baitakit, ezagutzen baitut eskuararen aberastasuna. Eskualdun bezala, senditzen baitut, aberastasan horri zor zaion atxikimendua...

Eskuara, mintzaira aberatsa.

Gizonak, bere adimenduko gogoak, hitzez ditu kanporatzen.

Eskuarazko hitzak dira garbi, gotor, mugatsu.

Zorigaitzez, gure eskuara ez dute munduko jaun handiek hautatu, erresumen arteko solaskatzeen ibiltzeko.

Solaskatze horiek nahiago dituzte ibili erdaraz. Erdaretan, bereziki frantsesak badauzka hitz batzu, dena zilinga, dena berdura, ez baitakizu nun bururatzen zaioten hezurra, eta nun hasten mamia.

Holako hitzak baliatuz, solaskari handiak maiz ados jalitzen dira elhetan.

Ez ahatik gero... obretan.

Guk, Eskualdunek holako mintzairen abilezia, deitzen dugu ahulezia.

Gure mintzairak ez ditu hitz berak baliatzen, «aitaren» eta «amen» erraiteko... Hortakotz, gure mintzairatik hazi gizonak, hitzak garbi ditu, eta obrak argi.

Zonbaitek diotena da eskuara dela mintzaira pobre, asko erdarazko hitz ez ditazkelakotz eskuararat bihur.

Dut ihardetsiren, badirela ere asko eskuarazko hitz, erdararat bihur ez ditazkenak...

Eta beharrik!... Horrek dio-eta emaiten gure mintzairari bere mami berezia.

Hitez hitz bihur ditakeen mintzaira ez da berezia, baina bihurtuaren potreta edo itzala... Beraz balio gutikoa.

Ez, ez da eskuaraz mintzatzeko, erdarazko hitzen, gurez ordaintzea aski...

Hitez ez dute, edo arras guti dute egiten mintzaira, baina ba hitz heien lerrokatzeko moldeak, heien barneko muntadurak eta heien arteko josturak.

Hasteko, hitz berek ez dituzte baitezpada gure baitan sentimendu berak pizten, erranak direlarik erdaraz edo eskuaraz... «Salut maman» eta «Agur ama», erran berdina dira, bat frantsesez, bertzea eskuaraz... Baina segur naiz, sarri, etxerat sartzean, eskualdun girenek gure amari oihu egin baginezo «Salut maman», «Agur ama»-ren orde, segur naiz, gure ama grinatuko laitekela ez ote dugun bederen Eskualtzaleen Biltzarreko bazkaria sobera ohoratu.

Mintzairalari diren jakintsunek ez dakite nola aski goreski eskuarazko hitzek dauzkaten aldakuntza nasaiaik...

Bereziki gure aditzak. Gure aditzak, hainbertze plegu har detzazke, hain ontsa gogoaren xendra xeheenak sala detzazke, nun jakintsunek berek baitiote guti aditzik dela bertze mintzairetan, gureari paretzeko on denik.

Etsenplutzat huna bi aditz, maiz gure solasetan lerrokatzen ditugunak: «Baginu baginakike»... Entsea zaizte bi hitz horien frantseserat bihurtzerat... Ohartuko zirezte bi hitz xoil horiek, frantsesezko ahurtara bat bihurgailu galdatzen dutela.

Eskuara ba, mintzaira aberatsa...

Hain aberatsa nun, bizikuntzan eta iragan gertakaritan jakintsun direnek baitiote ez ote den izan, denboraz, gizon arraza bat biziki ernea



eta izpirituz aberatsa, eta arraza hura zerbait izurritez galdurik, ez ote girenetz gu, Eskualdunak, haren semeak, nolazpeit salbatuak.

Dena den, jali ahal ditut aski xehetasun eta aski lekukotasun, erakusteko eskuara zoin ontasun baliosa dugun.

* * *

Eskualdun gisa bagira eskualtzale, bietan hala gira fededun gisa...

«Eskualdun, fededun!» da errana. Argi zonbait eman ditzagun erran huntaz.

Eskualdun izan ditake, fededun izan gabe... Ez da nehun errana, liburu sainduetan, fedea dela, eskuara edo bertze edozoin mintzaren mutil... Fedeak ditu bakarrik iraupenezko agintzak... Ez eskuarak... Beraz ez ditzagun jos fedea eta eskuara, ezin urratuzko lokarritz...

Eskualdunak luzaz Eskualdun izan dira, gure fedetik kanpo biziz...

Oraiko egunean ere badira Eskualdunak, egiazko Eskualdunak, eta bizkitartean federik gabeak.

Eta fededunetan badituzu Eskualdunak, axola guti dutenak eskuaraz eta eskualdunagoaz.

Horiek hola, eta gorapenetan gure adimenduaren jorraia ibili ondolan, on da jauts gaiten ere beherapenerat...

Apaletik eta dena den eskualdun jendetzea ikusiz, aitormena zor dugu batetik eskualdunagoa dela fedearen aberasgailu, bertzetik fedea dela eskualdunagoaren sustengu.

Eskualdunagoak fedeari ekarri dio bere odol azkarraren eta mintzairagarbiaren zurkaitz gotor eta iraunkorra.

Gure erlijioneko saildu famatuenerarik biga, San Inazio Loiola eta San Frantses Xabierrekoa, ziren eskuararen eta fedearen bi iturri nasaientarik haziak.

Eskualdun arraza, denborak baiterabilka, bertze mundu huntako edozoin izaite bezala, arraza horri fedeak ekarri diozka norbaitasuna, goratasuna eta iraupena.

Ezin ukatua, oraiko egunean Eskualdunak, norbait delako fama duela munduan...

Ez dugu segur beti fama bera izan...

Fede gabe ginelarik edo fedezko lehen urratsetan, Eskual Herria, jende arrotzek ez zezaketen aise trebesa, hain omen baitziren Eskualdunak, mandilak, ohoinak eta odolkariak.

Gogoratzen ote zauzkigu, Eskual Herrian fedezko gizonak erabili dituzten neke eta lan dorpeak, ixuri dituzten odol eta nigarrak, gu, oraiko pleguetarat izararazteko?

Eskerrak eta bietan eskerrak zor diozkategu beren lana egin baitute gure eskualdunagoa errespetatuz... Ez gituzte, fededunduz, auzotu, kanpotiaritu... bainan guretasunez aberastu...

Ez dute fedearen hedamenak, ez eta ere Elizaren legeek galdatzen, fede hartzaileak uko egin dezan bere mintzaira eta ohidura sanoeri, baina ba hek begira ditzan artoski.

Orroiti ditela hortaz, orai eta gero, Eskual Herrian fedez kargu duten gizonak.

Ohore gure diosesako jaun buruzagieri, aspaldidanik eta bipilki agertu izan baitira eskualdunagoaren alde.

Fedeak gure eskualdunagoari ekarri dio bere norbaitasuna, bai eta ere bere goratasuna.

Ezin ukatua gure fedek gizonaren gogoari idekitzen diola izari gabeko zabaldua... Betieretako eremuak, fedeari esker, bilakatu dira eskual adimenduen alha-leku. Ber denboran, eskuara aberastu da gora-ibilera hetan baliatzen diren hitz eta erakaspenez.

Nork erran du Eskualdunen izpirituak direla maiz, jakintza eskasian, dena otardi eta larreak?

Nik dakitana da, hanitz, beren ustez jakintsun diren gizonak, ez dutela eskola ttipiko Eskualdun zombaiten izpirituko hedadura, eskas dutelakoz fedek idekitzen dituen eremuen gakoa.

Norbaitasuna, goratasuna, fedek oraino eskualdunagoari eman dio bere iraupena.

Ez naiz batere oihukatzeaz beldur, gure fedea ez balitz gure Eskual Herrian sartu, oraiko egunean, ez zela hemen gandi aipu izanen ez eskuararik, ez eskualdunagorik.

Fedezko gizonak diote gehienik eman gure mintzaira eta ohidura oneri, bizitzea eta iraupena...

Ez bakarrik kasuki, bainan kartsuki, eskuara mintzatuz, eskuaraz predikatuz, katixima eginez eta izkiriatur, eskualdun usaia zaharrak beiratur, gure apezek eta heiekilakoek dute, gelditzen zaukun eskualdunagoa xutik atxiki.

Ez da beraz harritzeko, eskualdun apez eta heiekilakoek, eskualdunago baitaukate beren haur berezitzat, eta, alimale basek bezala, hortzak hirrikatzen badituzte haur horri jazartzen direneri.



Bi espos xahar bezala, eskualdunhoa eta fedea, aspaldian elgarrekila-koan bizi dira, eta batentzat kaltekor dena, ez ditake izan bertzearentzat ez-deuskeri edo hobekor.

* * *

Ordu da prediku huni eman dezodan bururapena.

Eskualtzale gira, Eskualdun girelakotz behin, eta bietan, fededun girelakotz.

Zer gauza hitsa etxalde bateko nausiak, bere lazakeriaz, alferkeriaz eta aiseriaz, bere ontasuna larre joaiterat uztea...

Bilakatzen da estimugabe eta higuigarri bere ezagunentzat, bere ondokoentzat, guziz bere buruarentzat.

Eskualdunhoa da Eskualdunentzat ontasun balios bat...

Ez ahal dugu nahiko, egun batez, gure etxaldean, gure ondokoak erdaraz mintzo daiten, erranez: lehenago norbait ginen hemen, baina gure burasok ahul, guri, ez-deus gertaturik, galdu dugu gure norbaitasuna.

Ondoko desohorerik nahi ez duenak, oraidanik tinka bitza bere hortzak, har bere makila eta zafra sasitzen hasi bazterrak.

Eskualtzale buruzagi jaunak, zuen saila dorpea da, baina eder eta baliosa... Batzuek diote eskuara dugula ilun nabarrean... Zueri esker, ilun nabar hori bilaka bedi goiz alba garbi... Badakit ez zireztela ohore gose... Onar-azue, gu denon izenean, merezimenduari zor zaion agurra...

Zuen egin-ahal xoilarentzat, nahi izan duzue gure Jainkoari galdatu lauzka, meza hunen bidez...

Ba otoitz egingen dugu, meza huntan, eskualtzale guzientzat, bereziki aurtan bertzemunduratu zauzkigunentzat. Otoitz egingen dugu Eskual Herriarentzat!

Jesus Jauna, behin Jerusalemeko so zinaudela, nigarrez lotu zinen, holatsuko ziniolarik: Ha hiria, hoinbertze moldez entseatu nuk hi salbatzerat!... Baina, ez nuk segitu!... Ez duk urrun eguna nun larre bilakatu-ko bahaiz!

Eskualtzaleak, zu bezala, ilun gaude, gure herri eta hirieri so plantatzen girelarik...

Hainbertze nahi ginituzke salbatu!...

Otoi, Jesus Jauna, ez zatzula utz gure herriak larre joaiterat!

Lagun gaitzatzu heien salbatzen!

Jesus Jauna, gure herri hiritan, eskualdunhoa ez dadien larre joan, hemen giren eskualtzalek otoizten zaitugu. Jesus Jauna, entzun zaitzatzu! Halabiz.

(Gure Herria, 1960, 275-280)



EUSKALZAINDIAN SARTZEKO MINTZALDIA

PIARRES LARZABALEN MINTZALDIA

Jendetasunak galdatzen du, kargu berri bat hartzen duen gizonak, eskerrak bihur ditzan, kargurat heltzen lagundu duteneri.

Noizbait, Aman errege zaharra egin omen zen bezala, gogoetan egon naiz ni ere, nori ote nintzan ba zordun eskuararen alde bildu dudana kar eta atxikimenduaz.

Euskalzaindiko lagun batzu entzun ditut, beren aitamen merezimenduen kantatzen, eskuara irakatsi ziotelakotz... Berehala diot ene aita-mek ez dutela merezimendurik, eskuara badautet erakatsi... Zer nahi duzue irakatsi zezadaten? Ez zakiten ta besterik!

* * *

Ni baitan, eskuararen eta eskualdunagoaren amodioa, betan sortu eta azkartu izan dira, ez gure izaitearen adixkideri esker, bainan erdaltzaleri esker.

Egun beraz eskerrak zor diozkat tipitan ukan dudana herriko errientari (Jainkoak bere lorian duela!). Hainbertze zanpaldi hartu izan ditut harenganik, hainbeste aldiz entzun «avec ton sale basque... Ganich de Macaye» eta holatsuko goxokeriak, nun, haren aiherkunder, berak hastiro zituen guziak bilakatu baitziren enetzat maitagarri.

Ikasiak ikasi, oraino egunean ere loriatzen naiz gertatzen direlarik eskuararen etsai amorratuak... Hek dira gure mintzaiaren adixkide hobereak.

Eskualduna baita, jitez, borrokaria, borrokatzeko pazka-emailek gutiago naute beldurtzen, ezenetz, azpiz eta satorka, gure ahultzen ari direnek.

Eskerrak beraz ene erriente izanari.

* * *

Eta orai, ez bada gomeni apezak apezaz jorra dezan, bizki tartean hortarako ausartzia hartuko dut.

Bai, eskerrak zor diozkatet Hazparneko ikastetxean erakasle ukan ditudan apezari.

Etxe hortan sartu nintzalarik hameka urtetan, horko apezek gain-gainetik debekatzen zaukuten eskuaraz mintzatzea? Eskola bakotxak bazaukan ziri-mutur bat, «anti» bataiatua... «Anti» hura, eskuaraz mintzatzaren zenari, eskuar emaiten ginion, eta nork ere hura izaiten baitzuen aratsean berekin, harek behar zuen berrogoita hamar aldiz idatzi erranbide hauxet: «Je ne parlerai pas en basque».

Orroiti naiz behin «anti» hura izan nuela, Manez ene lagun bat bere izenaz deiturik... Ez omen nion «Manez» erran behar, bainan «Jean». Geroztik, lagun hura deitzen nuen beti «Manez mecum». Hola, latinez mintzo nintzan eta ez nuen delako ziri haren ukaiterik.

Oraino egunean, gogo-ikertzaile jakintsunek, zernahi erakaspen berri jaltzen baitaukute, diotenaz haurrean sobera zapan atxikitzen den barne-indarra, edo emeki talotzen da eta endurtzen, bainan berdin sumintzen, gotortzen eta, egun batez adinarekin, su hatsa lurretik bezala, oldartuz zapartatzen... Ez ote zaut eni ere holako zerbait gertatu? Ez ote naute naizen bezalakoa egin gartzetan ene nortasuna sobera zapatuz? Eskerrak beraz hoin jakintsuki eskolatu izan nauten Hazparneko apez erakusleri.

Ene mileskerra zor diot beste norbaiti ere. Beste norbait hau, gutik dukezu hemen ezagutu... Gizon zahar bat zen, bizi Iriburukobordako pentzean oraino zutik den etxolan... Etxola horren inguruko pentzea, guk ginuen ardi pazkatat negukotz hartzen. Horrarat joaiten nintzan, aitatxi-ren lagun, ardi zaintzerat, eta etxola hortan iragan izan ditut ene haurtasuneko orenik goxoenak.

Delako gizon zaharra gabezia bizi zen eta ez zuen beldurrik edariaz, bainan ba haren eskasiaz... Onbor-su eder baten inguruan, gartzain batzu errez, luzaz eta luzaz, ahoa xabalik egoiten nintzan haren entzuten. Iñazio Beltza deitzen zuten. Karlaxta izana zen eta gerla egina zuen Santa-Kruz erreto famatuaren manu-pean. Saski potor bat bete nezake haren gerlako kondaira harriarriez. Haren solasek piztu ametsetan, frango aldiz, karlaxta jauntzia soinean hameka Español «Beltzetarik» enganatu, tirokatu eta paloztatu izan ditut.

«Aski zitekan beren lekutan egoitea eta gu, gure etxean nausi uztea» zautan artetik erraiten Iñaziok, liberalak aipatuz, Eta ere, boza goxatzen zuela: «Santa-Kruz, hura bai apaiza zela, motell!»

Jainkoaren bideak ez baitira gureak, uste dut, adin hortan, edozoin sailduren bizitzak baino gehiago, Santa-Kruzenak zautala idekidura zerbait eman apez izaitearen bertute eta goratasunaz. Orduan ere bildu nuen



betikotz kezka bat, gure Eskual-Herri maiteari zor litzaiokeen beregainta-sunaren alde.

Iñazio Beltzaren etxola zen, enetzat, egun guzitako terrentatik ihes-leku bat, lurkeriez goragoko gozatei bat. Etxola hartan dut goizik senditu, geroztik maiz frogatu dudán «ttiapiaren handitasuna eta handiaren ttipita-suna»... Gizon zahar horrek ez zuen barne hutsa, ez berekoia. Bere biziko urte ederrenak, eta bere baitarik, emanak zituen bere Herriari... Ez zuen hortakotz saritzat ukanik, ez pentsionerik, ez gradu, ez xingolarik, bainan ba gabezia, desterrua eta ahantzpena... Ote da gure artean hanitz gizon, Iñazio Belzak bezenbat, bere Herriarentzat egin duenik edo egin lezake-nik? Eskerrak diozkat... Ez dut nik izan hura baino erakasle hoberik.

* * *

Bainan semetxi ongi ikasiak ez du ixilik uzten, ez eta goretsi gabe, bere aitatxi... Egia erran, Lafitte jaun kalonjeak hoinbeste semetxi badauzka, nun ez bainaiz ni, horren leman beraz altxatu opilen artean, kozkor xume bat baizik.

Ez dut uste, lehen aldikotz jaun hori ikusi nuenean, horrekilatzeko bikea izan zen horren eskualdunhoa, ez eta ere, andereri gertatzen omen zaioten bezala, itxuraren ederrak arraiatzen duken zerbait tirantza. Ez daute ere aitatxi hunek present handirik egin, salbu zonbait oren, tente potente, pazota baten zurkaitz egoitekoa.

Bainan, nik irria maite nuen. Uztaritzeko ikaxtetxean sartu nintzalarik, nire apez erakusleak ikertu ninduen begiz eta bihotzez... Bat aurkitu nuen otsoa, bestea marrakaria, hirugarrena kixkila eta azkena kukusoketaria... Irri-egilea zen, bakarrik, Latitte jauna... Eta dautzuet ez zuela dudaz edo ezpain arrasaz irri-egiten, bainan gorputz eta arimaz, gerria zumea bezala plegatuz, karkailaz eta lurrari agurka.

Bestalde, laster ohartu nintzan, Lafitte jauna ez zela eskualtzale pinpilin bat, ez bare bat, are gutiago aingira bat. Zonbaitek eskuara eta eskualdunhoa zerbitzatzen dituzte hautsi-mautsika, inguru-minguruka, arrisku-artzeko beldurka... Horien moldea «zuhurtzia» omen da. Lafitte jaunak eskas zuen gisa hortako zuhurtzia... Denboraz, Caton zaharrak beti solas berak baitzabiltzkan, «Delenda est Carthago, Behar da errautsi Kartago». Lafitte jaunak ere beti lelo bera ibili du eta dabilka: «Behar da salbatu Eskual-Herria».

Gure jaun hau ez balitz apez egin, izanen zen arotz, beti ingudiari joka... Eta, izan balitz alimale, izanen zen ulitza, beti zizta eta zizta. Noiz-

bait, nik uste bere joarearen soinua jabalduko ziotelakoan, lepotik eman zioten xingola gorri bat eta, bizkar gainetik, zamar belusadun bat... Bainan, bai zera! Joarea ez da eztitu... Izaitekotz ere ozendu.

Horra nolakoa dudán nik aitatxi... Holakoa delakotz dut aitatzitatz hautatu... Luzaz bizi dadiela!

* * *

Esker-emaite luzesko haukien ondotik, ordu da aipa dezadan Jean Elissalde edo Zerbitzari, egun Euskalzaindiko jar-lekuan ordaintzen dudán adixkide eta herritarra.

Iragan Maiatzean egin ditu bi urte zendu zela, 78 urtetan... Azkainen sortu zen Malobaitan... Etxe hunen auzoan da Martzenea. Chourio hor sortu zen, Zerbitzari baino berrehun bat urte lehenago... Eskuaraz atera zuen «Jesus-Kristoren imitazionea» eta hil zen, Donibane-Lohizunen erretor egonik.

Elissalde-tarrak ziren bost haur: hiru seme (bat apez eta bi guarda) eta bi alaba (biak ezkondu-gabeak: bat oraino bizi da).

Ontsa ezagutu dut Zerbitzariren aita: Ganix guarda... Ganix guarda zen aingeru bat, errotik elizatiarra, uli bati minik eginen ez ziona.

Elissalde familia eta gurea adixkide ginen, eta gainerat, lanean partzuerkoan ari. Alabainan, hek guardak ziren eta gu... kontrabandixtak.

Ez pentsa gero bi familiek egiten ginituela tratu itxuxi beltzetarik. Gauaz, gure aita topatzen bazuen buruz-buru mendian, Ganix guardak oihuz erranen zion: «Kargak lurrerat, gizonak fuera!». Orduan, gure aita segurki bere burua salbatzen zuen, eta ahalaz bere karga ere.

Eta, ondoko igandean, bi gizonak emaiten ziren galerietan elgarren ondoan, eta biek zeruko Aita berari galdatzen zioten «egunean eguneko ogia».

* * *

Elissalde apez gaztea, Uztaritzera igorri zuten bikario... Uztaritze da Lapurdiko hiri nausia... Uztaritzen, Zerbitzari luzaz egon da eta anitz lake-tu... Hortik joan zen hamalauko gerlarat... Hortik ere Ameriketarat, diru eske, hango Eskualdunetarat, lekuko semenario ttipiaren eraikitze-ko...

Hor, Dassance jaunaren inguruan, maiz biltzen ziren orduko eskualtzale aipatuena: Zerbitzari, Otsobi, Dufau, Saint-Pierre eta beste.



Bizia, jendekina, pilotaria eta footbalaria ere baitzen, Uztariztarrek eta bereziki gaztek anitz maitatu zuten beren bikarioa eta hau ere, errotik estekatu zen heieri.

Ez da beraz harritzeko, Jonas profeta bezala, burua handi eta gogoa hotz hartu baitzuen Liginagako bidea, harat erretor izendatu zutelarik.

Liginaga duzu Xuberoko herri ttipi pollit bat, Atarratzetik hurbil... Ez zen hanbat lan Liginagan holako apez gazte ibilkariarentzat. Buru lanentzat aski zituen arats ixil luzeak. Hortakotz, aratsaldetan Liginagako erretora maiz ikus zitaken Atarratzen, horko gazteri pilotan erakusten, edo oraino, amorroin-arrantzan inguruko erreka garbi bizietan.

Bainan, Manex batentzat, Xuberoa da pixka bat... purgatorioa. Bestalde, urteekin, gizon gehieneri sortzen zaiote sort-herri-mina, iduri balu bezala zahartasuna hobekienik goxatzen duela haurreko orroitzapen ez tiez loratu lurak.

Beraz, Jaun Apezpikuak Zerbitzari atera zuen Liginagako zilotik eta ezarri Gerezieta kaskoan. Hola zeruari hurbilago zen gure apeza, baina beste zerurik esperantza baitzuen, berriz ere, Jonas bezala, buruari hazka zuen onartu kargu berria.

Horra nola ginen auzo gertatu hiru eskualtzale: Elissalde Gerezieta, Moulier Donoztirin eta nihaur Hazparnen.

Beti eskualtzale, pilotatzale, arrantzari, Zerbitzari Gerezieta iragan ditu urte lerroak... Gerezieta maitatua zen. Bere «urrezko ezteientzab», herriak pesta pollit hunkigarri bat muntatu zion... Frantziako telebixtak hura zuen hartu gaitzat, baserriko eskualdun erretor zahar baten bizitza erakusteko... Gerezieta jo zuen Marella, Aita Sainduaren Pariseko nuntzioak, Besta-Berri nola iragaiten den hor gaindi ikusterat.

Hil bezperan izana zen proosionez Garraldako mendian, berak han ezarri Ama-Birjinaren ondorat. Adixkide eta eskualtzale multxo batekin aratsa iraganik, ohean sartu zen beti bezala, bainan gehiago ez jeikitze. Gau hartan, Maiatzaren zortzian (1961), lur huntarik hegaldatu zen haren arima.

* * *

Horra laburzki gizonaren bizitza, bainan nolakoa ote zen gizona? Noiznahi, Zerbitzari, Otsobi eta ni elgarretaritzen ginen, maiz gure etxean, Hazparneko merkatuz eta mahainaren inguruan.

Orroit naiz noi, lehen aldikotz, bildu ginen hiruak. Arasalde bero batez, jo ginen Zerbitzari eta nik Otsobirenganat, behar ginelako hiruek

karamarro arrantzan ibili. Otsobi han aurkitu ginuen baratzean, porru jorran ari zeta, azpi traste batzuen apagailu, sotana perde bat, pertala batetik gora estekatua, zapel zabal bat buruan... Iduri baitzuen zori haizatzeko mamua.

Gu ikusi ordu, angeles zakur mutur motzen pare, orro ilun batean lotu zaukun ean eskuak hutsik heldu ginen, haren bizkar aratsaldea iragaiter.

Zerbitzari saingatu zion errepusta, aleman artzain zakurren moduan, boza erre erlatz batekin erranez, zorretan zela gero eta gainerat judu zikoitz zahar bat zela.

Horiek hola, joan ginen hiruak arrantzarat, Heleta eskualdeko erreka batetar. Otsobik hartu ninduen bere ikasle eta xeheki argitu nola urean hedatu behar nuen uztai sareduna bere bakallau ustel apastarekin... nola ixil-ixila egon behar nuen, karamarroak beharri ernea baitu, arrain zamardunak uztai barnerat sartu artio.

Bizpahiru arrain bildu zirelarik apastaren hegirat, uztai uretik atera nuen brastakoan, bainan ez naski «maxtroak» irakatsi bezala, ezen ez nuen leihorreatu ez karamarrik, ez eta... bakallau buztanik ere.

Orduan zer gertatu zen, hobe dut ez salatzea. Otsobik ahanzi zuen ixiltasuna eta ahanzi... eskuara... Orroaz mintzatu zen. Espainolez, arabaz eta frantsesez.

Nago ez ote zituen «eihar-otoitzak» bota... Iduritu zitzaitan haren litanien ondotik, inguruko hostoak zimeldu zirela, arbolak uzkurdu... Eta ni nintzan salun-xakur gaixoak, zin egin zuen, sekula santan gehiago ez zela sartuko bi tete handi horien arterat.

Hola ziren Zerbitzari eta Otsobi, biak izaite gotor baten jabe, maiz elgarrekin, ez bakarrik biltzarretan, bainan ere erreka-hegitan, oihanpe onjotsuetan, bazter bidexketan, bainan beti gaizki uztartuak.

Ez uste izan ahatik barne dorpekoak zirela... Sagarroia bezala, azala ziren «ote-mulko», bainan mamiz «haragi-xuri».

O, zonbat bazkalondo ez ditut goxoki heiekin iragan, dena irri pollit, solas lehun, kondaira zahar eta pertsu... sekulan nehoen kontra gaxtake-riarik gabe!

Ordu hetan zen hobekienik senditzen eta jastatzen bi gizon horien haurtasuna, onezia eta jauntasuna.

Bainan, gizon batzu ere baitira, aroa bezala, gorabeherakor, zonbat aldiz ez ditut aurkitu biak goibelduak!



Ez zen beti errex zilatzea zer lanok zioten kopeta marratzen. Ez ziren ere biak berdinki mutur handitzen: Zerbitzari zen pindartzen, kaxkartzan, errabiatzen... Otsobi aldiz sumintzen, bultatzen, erotzen.

Besteak beste, hobe zen, askotan segurik, Zerbitzarirekin pilotan ez hastea. Ez zuen jo handia, baina segura, zaila zen eta aintzina gobernatzailea... Ahatik, ez zituen bere nahi, pilota segurki onak baizik, baina ere dudazkoak. Holakoa zelakotz, asko partidetan, jo-erreferak ez ziren bakarrik egiten pilotai, baina ere mihiz.

Ez dakit egia edo gaixtekeria hedatua den Hazpandarrentzat fama: Triperoak direla, haro handikoak eta trufariak... Eskual-Herrian muntatzen balitz izen-goiti-emaileen akademia nik uste Hazpandarrek ereman lezaketela lehen prima. Dena den, ikusten baitzuten Zerbitzari zela maixko herriatik kanpo, Hazpandar batzuk, auzo gisa, beren ziliporta bota zioten eta bataioa eman «Nunbait».

Uste dut Zerbitzari balin bazen zakur ihiztorra, zela ere ate-zakurra. Lekuko hor dira haren buru-lan lerrokada luzeak. Ez dira hoinbeste paper zirrimarratzen maiz nunbait ibiliz, baina maiz bulegoan egonez.

Ba Zerbitzarik anitz idatzi izan du bere bizian. Begien aintzinean daukat oraino haren eskribu eder, oni plegatua. Lumalari kriketa zen, baita ere langile artatsua. Bere burulanak beiratzan zituen liburutegian, kaier batzuetan etzanduak edo izkirioz, edo axturraz nunbait inprimatutik bilduak... Obra horiek zainduak dira ximenki bere Hendaia iloba baten etxean. Han ukan ditut eskumeneko.

Argitaratu dituen lan ezagutuenak dira: *Ama Maria Paionekoa* (1930), frantsesetik itzulia, *Bahnar deitu salbaiak* (1936), Dourisboure, Bezkoiztar misionestaren frantses obra, eskuaraz apailatua, *Atsotitz, zubur hitz, eta erran zihar* (1936), iburuxka, *Ixtorio saildua* (1943), *San Fantses Xabierekoa*.

Bestalde, agertu gabeko edo han hemenka lanez moldauak, kausitu ditut asko kaier... Huna horietarik zombaiten tituluak: Nere Kantore, Pilotan, Sor-lekua, Gerla denboran, Kaixima, Eskualdun kantikak, Gaxuxa, Premu.

Liburuez kanpo, Zerbitzarik idatzi izan du kazetetan, Gure Herrian, Gure Almanakan, Egutegietan.

Nola utz aipatu gabe Zerbitzarik Eskualtzaleen-Biltzarrean ibili duen lan balios, ixil, luze!... Primeri buruz haurrek idatzi lanak, milaka eta milaka zuzendu ditu... Hetaz eta herrika, artikulu jostakin eta jakintzadun frango argitaratu... Hetaz ere, Eskualtzaleen-Biltzarretan asko mintzaldi erne eta maleziatsu atera.

Zerbitzari ez da izan bere buru-lanetan, sail bakar baten ibiltzale, baina lau bost sailetan entseatu izan da.

Ene iduriko, lan hoberena egin du, ez bere baitarik pentsatzaile eta sortaraztaile bezala, baina besteen itzultzaile eta xoko-mokoen miatzaile bezala.

Uste dut Zerbitzariren teatro lan edo antzerkiak eta haren pertsuak ez direla hain egokiak, nola baitira haren kondaira laburrak... Hauk ditu bere oroitzapenak, edo bazterretik ikasiak edo erdaratik hartuak.

Zerbitzarik maite zuen pertsua, bai eta pertsu-ditxoka artzea. Baina pertsulari bada, ez da olerkari. Pertsuen zango eta lerro-buruak zuzen dabilzka, baina haren ateraldiek ez dute zimenduz pertsulari direnen mamia, bortitza, pindarra edo grazia.

Haren teatro-lan edo antzerkiak ere ahul dira josturaz, mugimenduz, barnatasunaz eta jokalarien nortasunaz.

Baina Zerbitzari, zer erle baliosa han hemendik bildu xurru-burru batzuetarik, ezti gozo baten moldatzeko!

Zer itzultzale ernea, erdarazko obren mamia errespetatuz, heien erdal-kotsurik gabe, eskuartzeko!

Zer ikertzale lantsua, lehen gertatuen oraikoeri salatzeke!

Zer eskual hazi ereile alaia, haur eta gazteen, plazerrez hantzeko eta tentatzeko!

Ez mia Zerbitzariren buru-lanetan gotorraren indarra, ametskeriaren ilunpea, espanturen karkara edo sarkorraren zizta, baina leunaren goxoa, irri-mirriaren nifrira, izariaren argi eta garbia, bihotzaren maitasuna.

Zilarra, irakur-errega, jendekina, orokilakoa, ez gora eta ez barna, baina axal apaindua, ez sisti-sasta, baina, xixti-xaxtakaria, horra nolakoa den Zerbitzariren luma... Nolakoa gizona, halakoa lana.

* * *

Jaun eta andereak. aski eta sobera luze izan den mintzaldi hunen bururatzeko, zor dautzuet, apezala alabainan, mixterioaren fruitua.

Ez uste izan kito zirezela eskuararekin ni, egun huntan, ezarritik ohoarearen zapan, Ohore hau, makila bat gehiago izanen da ene eskuetan, eskuararen zerbitzatzeko... Hanbat gaxto makila hau zuen bizkarrean baliatzen badut... Emaileak ez ote du hartzaile izaiten jakin behar?

Nik ere, emanen ordainak egun hartzen ditut... Bestetaz aski irri eginarazi baitut, onartu dut bestek irrigailu ibil nezaten... Eta gainerat milesker diotet purgatorio huntan sartu nauten guzietari... Hola ikasiko ahal dute



zonbaitek egiazko Eskualdunaren jendetasuna noraino gora ditaken...
Baitute beharra!

Bainan ikusten dut ene aitatxi zilarra ez dagokela gehiago lekuaren
gainean, bere besoetako haur gaixoa kontsolatzeko hersturarekin...

Mintza zaite beraz, aitatxi... Errazkitzu golkoan dituzun guziak... Ar
zaite egiaka, eta ere, musean bezala, gezurka... Badakizu berdin artzen!
Erran nahi dut musean... Bainan, beti errazu gauza bera: Eskualdunak,
izan gaiten eskuaren Zerbitzari!

(Gure Herria, 1963, 323-339)

GURE PASTORALA

Jaun andereak:

Antzerti aroa, jendetzetan, ez da sortzen egunetik biharrerat, gure
oihanetan onjoa bezala. Bainan, bere garaian zabaltzen da, jendetzearen
bizipideak, ibilerak, nahastekatze edo auzokatzeak diotela ematen bere
atzarmena, era eta hedadura.

Egia erran, egundainotik gizonek maite izan dute elgarren artean
ahusatzea, edo elgar ziminokatuz, edo abereen biziantza jestukatuz edo
mudantzak idurikatuz.

Bainan, molde horien garaitik, pastoralara garairat, bada aberetasune-
tik gizontasunerat bezenbat bide.

Antzerti idatzia, artoski apailatua, sortu-zen, jendetzeak, bidekari
izan ondoan, noizbait eta nunbait kokatu zirenean, multzokatuzko bizia-
ri lotu, aski aberastu eta beldur-petik atera, abusamendutan lasaitzeko.

Horiek hola, ikusiko dugu nundik datorren pastoralara, nolakoa den
bere jokaera, nolakoa izan den eta den bere bizitza.

Lait hau balin bada ni-kia, neretzeko gaiak hartu ditut eskuin eta
ezker, eta bereziki anitz zor diotet Georges Herelleri eta Lafitte jaunari.

NUNDIK DATORREN PASTORALA

Greziatik ateraia da Europako antzerkintza guzia. Antzerki arorat
iritxi-arau, Europako jendetzek, Greziatik zabaldu eratik dute bakotxak
berena apailatu.

Bainan, antzertiak badauzka asko saila: parregarri, samin, erlijionez-
ko eta abar.

Pastoralak daukan arnasak, erlijionea du sustrai.

Europar, erlijionekari antzertiak izan ditu hiru garai aipagarri.

1° Grekoen garaia; 2° Erdi-aroa; 3° Oraikoa.

Grekoen garaiko asko antzerki dira erlijionez orratuak. Antzerkiak
muntatzen zituzten Dionysos Jainko basaren ohoretan eta haren jai egu-
netan... Antzokian ezartzen zuten, denen begien aurrean, Dionysosen
itxura eta, hunen apezek bazaukaten beren jar-leku berexa.



Antzerki-abesti asko botatzen zituzten Jainko basen ohoratzeko eta, sarri ere, ageriki ala izkutuki, Jainko basek beren sudurra sartzen zuten antzerki jokabidetan.

Sorginak ere eta heien pentsa-pentsaketak kausi ditazke ardura orduko antzerkitan.

Goi indardunek daukate gehienetan azken hitza: Jainkozaleak dira saristatuak eta Jainko-jaleak gaztigatuak.

Erdi-aroen, kristau-mixerioak dira berdin elizkizunak, pagano garai-koen iduriak, baina bataiatuak eta gizaldi berriari doakon gaiaz sustrai-tuak.

Mixerio horiek emaiten ziren eliza ataritan edo berdin barnetan, kristauen argigailu eta hobegailu.

Elizako buruzagiek, noizbait, ikusgarri horiek debekatu eta eskumi-katu ere zituzten, zikindu eta lizundu zirelaket... Baina halere, zurkaitz edo muntadura bera kausitzen dugu mixerio eskumikatuan hala nola sakratan.

Oraiko egunean, antzerki zuhaitza loretan dago erlijioneiko ikusgarriez... Askok lekutan, ematen dira «Paxioneak», bai eta ere fedea mamitzat daukaten ikusgarriak, ez bakarrik antzokitan, baina ere eliza ataritan eta nunnahi, fededunen biltzar handitan.

Baina jo dezagun Erdi arorat eta dakusagun nola orduko frantses «mixerioak» eta eskuarazko pastoralak diren elgarren ahaide.

1926 arren urtean agertu buru-lan batean, Georges Herellek zenbatzen ditu 67 pastoralak, oso-osorik daukagunak, gainerat, beste seien laburpenak, hamabi, orai galduak direnen aipamenak, eta azkenik, bederatzien izenak, ez baitakigu behin ere ukan duten izanik.

Geroztik, aipatu 95 pastoralak hauen gainerat, beste batzuek idatziak izan dira.

Pastorala guti izan da inprimaturik... Eskuz idatziak, beiratuak dira edo norberaren edo ororen liburutegietan.

Eskuz-idatzi zaharrena dugu 1723. urtekoa, papera zainek salatzen dutenaz... Une hartan idatziak, ez du erran nahi orduan jaioak.

Ikertze zintzuenek diotenaz, nekez zitaken eskuarazko pastoralarik XIII. mende aurrean. XVI. aldiz ditake izan pastoralaren urre garaia.

Itxura guzien arabera, frantses «mixerioak» eta eskuarazko pastoralak dira iturri beretik, baina nehorik ezin erran zoin den bestearen umea.

Mixerio ala pastoralen sustraiak dira berberak: Lege Zahar eta Berriko idazkiak, Sainduen Bizitza, Zahar Aroko gertakariak, Alegiazko gertakari espantutsuak, Kantu Zaharren erran-merranak eta holako.

82 pastoraletarik, 37k gai bera daukate beste hainbeste «mixterio»-rekin... Ondar 44ek ez daukate haurride ezaguturik «mixteriotan».

Nolajoka berdintsua aurkitzen dugu «mixterio» ala pastoraletan. Bat eta bestean kausitzen ditugu aurre eta ondo hitzegintzak. Biek derakartzen ikusgarria da: Ongia eta Gaizkiaren arteko betiereko guduak... Guduka hortan, Jainkoaren gerlariak dira: girixtinoak, Satanenak aldiz: Turkoak.

Bien joka-lekuak berdintsu muntatuak dira... Berdintsuak ere taula gaineko ibilerak, eta ere, jokalarien barne-azkurriak. Hauk dira: Erlijionea, maitasuna eta gerla-borrokak.

PASTORALAREN BEREZITASUNA

Pastorala eta mixerioa badira elgar iduri, ez dira berdin.

Ez dugu Xahoren iritzia onartzen, diolarik pastorala dela Erromanoen garaiko antzertia... Ez eta ere Webster-ena, diolarik pastoralak dauz-kala Zahar Aroko pertsuen zangokada, aire pikoak eta Ametsetako Jainkoen orroitzailu zerbait... Ez eta ere Léonena, diolarik gure pastoralak ez direla hain zaharrak, baina Pabeko jauregitik zabalduak, Marie d'Angoulême horko erregin zelarik. Ez eta ere beste zombaitena, baitote gure pastoralak heldu direla lehenago Espainian, Besta-Berrikari enlaten ziren «auto sacramental»-etarik.

Miakatze zintzuenen arabera, aitortzerat ekarriak gira pastoralak direla ahaideki frantses «mixterioekin», baina halere hetarik berexak.

Pastoralari bere berezitasuna heldu zaio lehenik bere mintzairatik... Gogoeteri hizkuntzak emaiten diote oinarri bihurgune eta altxaira ezin itzulizkoak.

Egia erran, pastoraletako eskuara, ez da garbienterik. Pastoralak dira pertsukatuak. Pertsuak zangoz desberdinak, lerro buruz ahulak, erditsutan pikaia batekin. Pertsu horiek dira kantatzen, elizki abestien airean.

Pastoralak badauzka bere joka-lege bereziak. Lege horiek aipatzen ditu luzaz Lafitte jaunak, berriketan «Bulletin du Musée Basque de Bayonne» agerkarian zabaldu duen idazki batean.

Xuberon muntatzen dituzte pastoralak herrika, herrian emaitako eta herritar bakarren artean. Pastoralaren hautatzailea eta buru gidaria deitzen da «errejenta»... Hau izan ditake herriz kanpokoa.



Pastorala eman aintzin, jenden biltzeko egiten da «mustra», Pastoralaren jokazaleak ibiltzen dira lerroan herriko karrikan, «konpainiaka» zatiakatuak (Satanak, Turkoak, girixtinoak, zeruko biziliarrak)... Batzu dira zaldiz, besteak oinez... Artzaina bere artaldearekin. Musikariak musikan.

Pastoralaren joka-lekua da lau ezkinetako taulagain bat. Aintzin sailhetsak dauzka hutsak... Giblean oihala, hiru sarrerekin... Erdiko sarrera, Handimandiena (Aita saildu, errege, aingeru eta halako)... Ezkerreko sarrerak du gainean deubru grimaskari bat... Hau da «Turkoen» atea... Eskuineko sarrera aldiz da «Girixtino»-ena.

Musikariak ezartzen dira oihalaren atzean, goratasunean, ferdailuz apaindu eseri-leku batean.

Lehenago, taulagainean egoiten ziren «gardianoak», eskopetak eskuan... Haurrak urruntzen zituzten tauladuratik eta, behar zelarik «xo» oihu eginez, ixiltasuna agintzen.

Oihal giblean emaiten dira neskatz «zerbitzariak». Haukien gain da jokalarien apaintzea eta joka-lekurat behar diren pusken tanko ekartzea (jarleku, mihise eta abar).

Lehenago, mustrararen ondotik, konpainia bakotxa igaiten zen taula gainerat, aurreko eskalera batetik, bere ibilera eta jestu bereziak egiten zituela oihalaren atzean izkutu aintzin... Taula-gainerat igaite hori deitua zen: Arribada.

Pastorala hastean emaiten da «Aintzin peredikia». Hunen emaiteko hautatzen dute boza ederdun bat. Hau agertzen da, errejentarekin, bi ezpatadunen artean eta atzetik daukala girixtinoen ikurrinlaria... Kantua emaiten, ikurrina higitzen da ezteki, kantariaren buru giblean, Kantariak botatzen ditu bere koplak eskuin eta ezker lekuz aldatuz, aspaldidanikako aire zahar batean... Jendeak agurzen ditu, jokalarien ahuleziez aintzinetik barkamendu eskatzen du, pastoralaren bilduma zeheki argititzen.

Pertsu lerro bakotxaren ondotik, besoak altxatzen ditu buruaren parreraino, eta musikariek, betiko aire bera jotzen dute koblen artean.

Ez galda pastoralari, izan dadien ordu gutiz, toki berean eta hari bateko gertatuaren antzerkia... Pastoralak agertzen dituen gertakariak dira nun-nahikoak, noiz-nahikoak eta nola-nahizki sailkatuak.

Pastoralen jokalaria izaiten dira, edo gizonki hutsak, edo emazteki hutsak, baina nahastekatzerik gabe... Hala beharrean, itxuraz aldatzeak egiten dira. Onak eta gaxtoak dute beren musika aire berezia, taula gainerat agertzeko.

Jokalariek dituzte eskularruak soinean eta makila eskuan. Kurrituz dute botatzen pertsua, salbu aingeruek, aita sailduak, presonerek eta hiltzerat doazinek. Makilaz eta urratsez pertsua dangatzen dute. Nor baitira eta arabera ibilera dute. Hala nola, Turkoak ibiltzen dira urratsez taula zampakatuz, menbroak dardarikatuz, makila buru gainean zirurikatuz, marmarizak murruskatuz, jartzean izterrak gurutzatuz eta holako.

Pastoraletan, pertsuen artetik emaiten dira ere kantu batzu. Kantuak ez dira edozeinez eta noiznahi emanak, baina bakarrik: Artzainez artalde zain daudelarik, aingeruez bere agertzetan, elizkizunetan, gizon ospetsu zombaiten otoitz bezala, pastoralaren bukaeran.

Pastoralaren artetik emaiten dira ere dantza eta «sataneriak». Lehen pastoraletan satanak ziren dantzari hoberenetarik, jauntzi ederrez apainduak. Heien itxurak ez ziren beldurgarri ala okaztagarri... Hiru lan zituzten egin behar: gizonak tentatu, gaxtoak lur-pean sartu, noizean behinka gavota dantzatu, «Bon voyage, cher Dumole» kantuaren airean.

Aspaldixkoan, ez dute gehiago pastoraletako satanek gizonik tentatzen... Heien eleak ixildu dira, gizenskoak baitziren orako belarrientzat.

Ez da pastoralarik, gudukarik gabe. Gudukak dira edo gurlari lerrokatuen artean, edo hiri harresiz inguratuak jaukitzen diren antzerat.

Hiria hartzeko egiten den guduka da egokienetarik, Oldartzalek pastoralaren joka-lekua inguratzen dute oinezkoz eta zaldizkoz, Adar tutaz «hil edo gurepetu» oihuka jazartzen dira eta, ala bada egitekoa, hiriaz jabetzen dira taula gainerat hupatuz.

Guduka lerrokatua aldiz «ballet» dantza baten antzerakoa da. Lau pondutan jotzen da guduka partida... Lehenik, gudulariak (denak dira aintzindariak) lerrokatzen dira buruz-buru... Bigarrenetik, artzen dira elgarri desafioka, askotan ohidura zaharretako solasketak hortarako erabiliz.

Hirugarrenetik, egiten da guduka. Bi lerroak, musikarekin dantzatuz, elgarrenganat hurbiltzen dira, bat bestearen ezpatak jotzen dituzte; beti musikari jarraikiz, elgarrenganik urruntzen dira eta hola zombait aldiz... Laugarrenetik, gudulari bat hiltzen da... Aurretik, arropa ez dezan zikin, neskatz zerbitzariak hedatzen diote ondoan oihal bat, haren gainerat eror dadien. Gardianoek eskopetaz tiro egiten dute... Hila, balin bada girixtinoa, bere lagunek dute joaten... Deubruak aldiz, balin bada Turkoa.

Taula gainak ez du sekulan hutsik egon behar... Ustarten betegailu, besteak beste, muntatzen da, noizean-behinka, jokalarien kurriketa... Eliz-



ki ibileretan bezala, ospetsuki eta musika joaz, jokalarik guziek itzuli batzu egiten dituzte taula gainean.

Pastorala idazlek ez dute den gutieneko axolarik garaikoa garaian ipintzeko... Abrahamen hortzetan, kantatzen da «De Profundis», Agar, arropatua da Madame Angot-en gonekin, Turkoak oldartzen dira Moisi, Absalonek pixtola bat dauka eskuan.

Pastorala amaitzen da himno edo abots elkartzuko abesti batez.

Ikusgarria bururatzean, botatzen da «azken peredikia», hastapeneko-aren molde beretan. Abeslariak emaiten ditu ikusgarriaren laburpen bat, barkamendu galdatzen eginak izan diren hutsentzat, eskerrak bihurtzen diozkate etorri direneri.

Ondotik egiten dira «antxerak»... Lehenago, pastorala ikusteko ez zen deus pagatu behar... Pastorala muntatzalek, zorren tapatzeko zuten batetik edaria saltzen ikuslarreri, eta bestetik «antxera» deitu, ohorezko eskea egiten, ikusgarriaren bukaeran... «Antxera» da herri bakotxari egina zaion deia, zoinak gehiago diru eman bururatu den pastoralarentzat... Emaiza egilek, gehien emailatik haste, ukaiten dute taula-gainean dantza-jauzien dantzatzeko ohorea.

Usaian, «bala» batez da bururatzen pastoralaren eguna.

Ez gehiegi luzatzeko, beste asko xehetasun uzten ditut aipatu gabe. Bainan, aski zabal mintzatu ahal naiz erakusteko pastorala eta frantses «mixterio»-a ez direla berdin, badira ere elgar iduri.

Eskualdunek daukagu pastoraletan «gureki» zerbait. Guretasuna ematen diote gure mintzaira, dantza eta abestiek, gure goitasun, omoretzu, larriak, guduken indar-jokoek, axaetik eta irrikatuz kondatu gertakariak, herrika eta herritarren artean muntatuak direlakoak.

PASTORALAREN BIZITZA

Dakigunaz, Xuberoa da pastoralen bizitei kasik bakarra... Egia erran, pastorala multxo bat emanak izan dira Baxenabarren, zonbait ere Lapurdin, bainan maizenik Xuberotar taldez. Pastorala, ez da Eskual-Herrian nehun etxekotu, salbu Xuberoan.

Horrengatik erran behar ote da, hola izan dela, Xuberotarrak direlako Eskualdunetan burutsuenak, erneenak, lehunenak? Hobeki ez ote dituzte hoinbeste dohain pastoralari esker, hau beiratu dutelakotz?

Gure iritziz, edozoin edestiri bere itxura ematen dio ez ustegabeak, bainan etorkizunak... Eta badakigu, jendetze baten etorkizuna agintzen dutela haren bizierak, erlijioneak, ibilera eta gertakariak.

Dakigunaz, oilo ama baten inguruan xitoeria muntatzen den bezala, hiri handi baten inguruan zabaltzen dira bizipideko muntadurak.

Halaber gertatzen da edestientzat... Edestilari ospetsuen lantegi edo ikastegietarik dira arraiatzen haren erako obrak.

Nun aurki Xuberoko pastoralen iturria?... Ez ote Paben?

Xuberoak ezagutu du Angeles, Frantses edo Naparroko erregen agintaritzak. Garai hetan, ez zezaketen, elgarrenganik urrun bizi ziren jendetzek, elgar kutsatu, orai bezain aise. Alabainan, ez zen orduan oraiko irrati, telebista, irakurgai eta ibilbiderik... Goiko agintariak berek, larderia guti zaukaten bere urruneko lurretan... Ikus-ikasketak, eta hartu-emanak, gehienak eta frangotan bakar-bakarrik, egiten ziren auzotik auzorat.

Xuberoak bere bizi arnasa hartzen baitzuen Pabe-Olorondik Maule-rat doan idekiduratik, gure iritziz, hortik beretik sartu da Xuberorak pastoralaren abiadura.

Hain xuxen, XV eta XVI garren mendetan, fama handikoak ziren, ez bakarrik Foix-tarrek, Biarnes eta Naptartar erregek Paben zauzkaten gorteak, bainan oraino Orteseko bizkondeenak.

Luzaz, Xuberotarren gotzaietxea zen Oloronen... Xuberotar ikasleak joaiten ziren Olorongo, Orteseko, Paueko semenario eta ikastetxetat.

Ikastetxe eta jauregietan, frantses jakinduria zen goraiatua? Orteseko ikastetxean, 1591. urtean, frantses antzerki bat eman zuten, Katalin, naptartar printsesaren aintzinean. Paben, Jesuiten ikastetxean, antzoki bat badaukatela aipu dute 1650. urtean.

Badakigu bestalde nola, Erdi Arotik aurrerat, frantses jakinduria zabaldutik inguru guzitan: Biarnoan eta Roussilonan, pastoralak eman izan dituzte 1830. urte artio, Britainian, 1850. urte artio, Italiako Toskanan eta Modenan, 1870. urte artio, Trentinon 1880. urte artio.

Oraiko egunean, Xuberoa da Europako xoko bakarra, nun bizi baita oraino Erdi-Aroko antzerti ospetsua: Pastorala.

NOIZ ETA NORK IDATZIAK



Nere iritzia eman ondoan, nundik eta nola datorzken gure pastoralak, aipa dezagun noiz eta nork idatziak izan diren.

Gure pastoralak dira hiru garaitakoak... Horrek ez du erran nahi, garai horien artean izan direla huts-guneak... Bestalde, pastoral bere, bere garaitik beste batetarat igo ditake, aldakuntza, gehitze edo laburtzeen medioz.

Apez garaia. Hola deituko dugu, hasiera ezagutu gabetik eta, Ber-jaiotza (Renaissance) arterainoko garaia... Hunen amaitzea beranduago izan zela Probintzietan ezenetz Parisen, orroitu gira.

Garai hortako pastoralaren idazlariak zirela gehienak apezak, ez da dudarik.

Pastoral horiek dira fedezko erakaspenez beteak... Askotan aurkitzen dira elizkizunak: Bataio, esposatze, ehortzeta eta holako... «Jerusalemen destruitzea» titratu pastoral (dugun zaharrentarik bat) hasten da «Veni Creator» kantatuaz... Pastoral horien gai gehienak dira hartuak Liburu Sainduetan, Sainduen bizitzan, Errankizun ospetsuetan... Amodio, galkor eta zikin, sarri agertua da.

LAIKOEN GARAIA

Garai hau doa XVII. mende bukatzetik eta XIX. erditsuraino.

XVII. mende bukaeran, Frantziako antzertiak ez zaukan aipamen onik... Zikina, lizuna zela-eta, Elizako kargudunek debekatu eta ere eskumikatu zuten.

Gure ustez, Elizaren jazar-kunde hori izan zen neurririk gabekoa, eta askotan, Jansenisten adimen idorregiaz buhatua.

Horiek hola, apezak gelditu ziren pastoral idaztetik eta hetarat joaitetik.

Bainan zorionez, ordainak sortu zaizkieten: Laikoak. Laikoek, erlijioezko gaiak pixka bat bazterturik, pastoralen sustraia hartuko dute bereziki gertaera zaharretan, alegiazko kondairetan, saltze gezurretan.

Maiz «errejentak» berak dira garai huntan, pastoralen idazle. Nor dira «errejenta» horiek? 1801. urtean Humboldt-ek, bere «Journal du Voyage en Pays Basque» idazkian, hauxe dio «Errejentak ez dira bakarrik pastoraletako ibileren eta hitz-lerroen erakasle, bainan oraino pastoralen idazle, nahiz diren haseritar xume batzu».

XVIII. mendeaz geroztik, baditugu pastoralak, beren idazle izen-petuak... Hola ditugu ezagutzen: Pierre D'Arhex, Laxague eta Mécol, eskolemaileak: Quintaburu eta Jean-Pierre Irigaray, arotzak: Jean Baptiste Cassou, zurgina: Jean-Pierre Heguiapal, nekazaria. Laurent Oyhamburu, espartin egilea; Hardoy, oi-hanzaina; Foix, igeltseroa; Jean Aguer, bidezaina eta abar...

ORAIKO GARAIA

Hola deitzen ditugu azken ehun urteak.

Jada erran dugu edestiaren bizitza dela inguruko gertaerez agindua eta orratua. Hori hola delakoa, argi eta garbi ikusten dugu azken garai hurtan.

1900. urte inguruan, Frantziako agintariak, guduka gorria ari dira Elizako buruzagiekin... Agintari horiek, aurrerantzaren izenean, eskuara nahi zuten kendu elizetako pulpitorarik eta haurren dotrina emantzatik.

Ai bai! Berehala, berpiztu zen apezetan pastoralen alderako suartasuna eta bi apez (bat Ithurry, bestea Justin de Menditte) lotu ziren pastoral idazten.

Orduan, eta, lehen aldikotz pastoraletan, agertzen da sentimendu berri bat: Eskual abertzaletasuna.

Ordutik ere, oraino erari jarraiki nahikundeak zerabiltzkala, pastoral idazleak eta errejentak abiatu ziren asko saindamendu ekartzen, usaia zaharri.

Georges Herellek minberaki aipatzen ditu saindamendu horiek: Paper eta kazetetz egin den burrunba, pagatuzko sarrera, «Arribada» kendua edo laburtua. Arropak, apaindurak eta asko ibilera, bestelakatuak eta abar.

Etsitua, 1926. urtean idazten du: «Ez izan den gutieneko itxaropenik... Eskual antzertia hila da, betikotz hila»

Bizkitartean, azken bost urte hautan, lau pastoral emanak izan dira: Barkotxen, Gotainen, Parisen eta Donibane-Lohizunen.

Lauetarik hiru, Georges Herellen etsitzeko eran. Laugarrena, Orreaga, era oraino berriago batean.

Zer pentsa, Zahar ala Berrien alde, dakusagun gudukaz?... Oraino urratsez ote dugu pastoral betikotz ehortzen, edo, ezin bestean, bestela orraztatuz, berpizten?



Mintza gaiten argi eta garbi. Eskual jakinduria ez dute agintzen goi-
indar izkutu eta ezin garraituzko batzuk... Eskualdun argituenak dira
jakinduria horren erabiltzale eta beiratzale egokienak.

Antzerki gaitan zerbait dakigunak, nabartzen gira oraiko erak eta
gustuak ez direla aurrekoenak.

Behar ote dugu ba lehenagoko neurritan egon eta antzerki idazten
ari, norentzat diren eta nork emango dituen itxoin egin gabe? Hola joka-
tuz, ez ote dugu aitortzen eskual jakinduria dela, azken arnasaren bota-
tzen ari den, zaharkeria bat? Ez ote da hori, beribilen garaian, gurditan
ibiltzea bezalatsu?... Jendetze guzitan ez ote da jakinduria, garaietik garaie-
rat, erreberitzen eta bestelakutzen?... Heriotzearen legea da, dena den
bezala, egoitea... Biziarena aldiz, beti saindatuz, beti bide berri batzueri
lotuz, ibiltzea.

Antzerkilariek, ez ditzazkegu, gizon ibileren oinarri horiek, ez ikusi
edo ukatu.

Gure eginbideari eta eskual jendetzeari zor diotegu, gure egitea,
oinarri horiek onartuz eta gogoan erabiliz.

Nahi dut, berria behar dela zaharrari josi, eskual saila ez dadien
arroztoz galdu.

Bainan, bi gauza dira eskual saila arrotzea eta arrotzaz eskual saila
aberastea.

Auzoak eta urrunekoak ere baduke zerbait onik... Jakin behar dugu
on hura guretzen eta gureztatzen. Bai eta ere, dugun ona besteri pasatzen.

Saihets xirripek gure bizi ibaia aberats dezatela eta, emanaz hartuko
ere baitute, gurez berena jori dezatela.

Gizon arrazaren hobetzea, ez da etorriko, batzuen jakinduria beste-
nez itotzetik, bainan jakinduria guzien berdin laguntzatik?

Nahasmendu eta hil bidetarat erortzea da, jendetze baten jakinduria
zapan beiratzalea eta ezeztatzea?

Elizako erakaspenek diote ez dela ezarri behar jendetze baten jakin-
duriaren zabalkundeari, ezin bentzutuzko trabarik...

Beraz, gu antzerkilariak, ez gaiten izan eskual antzerkiaren itotzale...
Hala gintazke, eskual zimendu hutsean antzerkien eraikitzea petrenitzen
baginu, bai eta ere, eskual zimendu guzia bazterrerat aurtikiz.

Zahar erako pastoralak maita ditzagun... Horiek eman ere ditzagun
noizean behinka, lehenagoko moldetan. Eskualdunek ikus dezaten zer eta
nola egiten zen horien garaian... Bainan izan daiteke bakarrik zaharkeri
orroitgailu eta maitagarri, eta ez hori egin benar dugunaren neurri eta
legeliburua.

Gure arbasoeri har diezotegun eskuarari eta eskualdunagoari zuten
atxikimendua, bainan guhaurreri da asmatzea zoin diren, oraiko egunean,
atxikimendu horren azkartzeko hartu behar diren bideak.

Aurrekoak guri eginkizun orroitzagarriak utzi dauzkuten bezala, guk
ere izanen ahal dugu gurekizun zerbait eskaintzeko gure ondotik heldu
direneri.

Gure haurrek aurki ditzaztela, gure supazterretan, ez bakarrik gure
aintzinekoek erre zituzten egur ileteak, bainan ere gure garaiko onbor ika-
tzak.

ORREAGA

Bainan goazen sutik zartainerat... Ean ba, zer utziz eta zer kenduz
naizen saiatu, Orreaga idaztean, lehenagoko pastoralak oraikotzerat.

Kendu ditut «mustra» eta «arribada», batetik ikusgarriaren laburtze-
ko, bestetik, ez baititake, oraiko egunean, errexxi aurki eta Donibane-
ko karriketan ibilarazi: zaldi, zaldizko eta artalde.

Laburtu ditut «aintzin eta azken peredikia», baitira bizitasun gabeak
eta ez hain baitezpadakoak.

Laburtu ere ibilera eta agurkatze batzu, gehiegi pisutzen baitzuten
ikusgarria, gure mende lasterkariarentzat.

Hobetu ditut idazkiaren mami eta axala: jokalarien beztidura. Gehia-
gotu dantza eta abestiak, ez nonbrez bainan motaz... Hola laketago izan
daiten belarri begientzat.

«Sataneriak» ausarkitu ditut, aspaldiskoan bazterrerat utziak baitzi-
ren, beren giordinkerientatik.

Emazteki-gizon nahasteka doi bat egin dut, ikusgarriak ukan dezan
bihotz-barnatasun aberatsagoa.

Boza-azkartzale tresnak baliatu ditut, jende hobeki aditu dezaten.

Gaineratekotan, pastoraletako egintza larrienak beiratu ditut, hala
nola: Girixtino eta Turkoen arteko eztabada, heien gudukak, dantza eta
abestiak, neskaxa zerbitzariak eta abar.

Nere xedea izan da pastoralaren Xuberotik ateratzea, bestek ere jasta
dezaten haren edertasuna. Xurruburrakeriak baztertu ditut, iduritu bai-
tzaute tiletez-tilet aurrekoeri jarraitutzeak, ez duela obraren ederra lagun-
tzen, bainan bai ahultzen.



Geroak erranen du ean, hola ideki ildo, izanen den alor baten abia-
dura edo sasiak betikotz tapatuko duen izaka galdua.

(Egan, 1965, 3-13)

GURE ANTZERTIA

Oraiko egunean jokutzen den antzertia, aspaldiko errotarik heldu den zuhaitza dugu.

Egia erran, antzertilaritza da, lur huntan, gizona bezenbat adintsu.

Egundainotik, gizonak maite izan dute elgarrekin jostatzea, edo elgar ziminokatuz, edo abereen ibilerak bezalakatzuz, edo oraino, naturak sortzen dituen gertakariak gaitzat hartuz.

Nolakoa baita jendetzen bizipidea, halakoa izaiten da heien antzertia. Oraiko antzertia, idatzia, aintzinetik artoski apailatua, ikusliarrez pagatua, sortu zen, jendetzeak, bidekari izan ondoan, noizbait eta nunbait kokatu zirenean, multzokatuzko biziari lotu, aski aberastu eta beldur-petik atera, abusamendutan lasaitzeko.

Jendetze bakotzak izan dituen gora-beherengatik, antzerti aroa ez da denetan ber tenorean azaldu.

Bestalde, auzoen artean, lokarri eta gurutzamenek nahitezkoak baitira, nahitez ere antzerti arorat heldu berriek, aintzinekoek ideki saila dute bertzen, edo den bezala, edo maizenik, beren direntasunez apainduz.

Eskualdunek, beren antzertirako ibileretan, lege bereri dira jarraiki.

Ez ditut hemen aipatuko, oraiko gure antzertiaren sustrai zaharrak, hala nola: Zantantzar, Matin Artza, Olentzero, Amona Mantagorri, eta gainerateko, jostagailu herrikoiak... Bainan, argitartu nahi nukeena da, nolaz eta zer bidez gure antzertia den ibili sortzetik orai artaino.

Argitasun hauien lerrokatzeko baliatu ditut Herelle zenaren eta Lafitte, jaun kalonjearen «pastoralez» idatzi lanak, aita Zabalaren, Labayen eta Behobide jaunen miaketak, nihaurenak.

Agerpen hunek izanen ditu bi zati

I) Lehenean aipatuko dut eskual antzerti zaharra.

II) Bigarreanean, oraiko eskual antzertia.

I) ANTZERTI ZAHARRA

Gure antzerti zaharrak badauzka bi aldaska. Bat, deituko duguna: Ziztakorra, bestea: Pastoral.



ANTZERKI ZIZTAKORRA

Ziberoan eta Baxenabarren, aspaldiko urtetan eta berriki artio, emaiten zituzten antzerkierako bi ikusgarri mota: Tobera mustra eta antzerki labur gazi batzu.

Tobera mustrak muntatzen ziren ezkontza gaizki erabiltzaleen trufatzeko. Ikusgarri larri ausartak, errabia piztaleak, maizenik emanak ziren pertsulari, dantzari eta zaldizkaden laguntzarekin.

Beste antzerki labur batzu emaiten ditazken edozoin, bestetan, edo berdin pastorala baten artetik... Hauk ere dira gaziak maizenik ikusleek ezagutzen zituzten jende bitzi batzuen trufagarri.

Egia erran, lopera mustra eta beste antzerki horietarik guti daukagu gure eskutan... Edo galduak izan baitira, edo hein ere ez idatziak.

Arribillaga jauna ari baitzauku horietarik zonbaiten ikertzen Bordaleko liburutegian, pentsatzen dugu bere lanaz aberastuko duela antzerki mota hautaz dugun jakintza xumea.

PASTORALA

Pastoralaz, mintzaldi bat egin nuen Donostian, iragan Ekainean, Mintzaldi hori (eskuaraz) agertzekoa da EGAN agerkarian. Huna hemen horren bilduma bat:

Pastoralak daukan hatsak, erlijionea du zimendutzat... European, erlijionekari antzerkiak izan ditu hiru aro aipagarri:

1° Grekoen aroa

Orduko asko antzerki dira erlijionez orratuak.

2° Erdi-aroa:

Kristau mixterioak dira elizkizun berezi batzu.

3° Oraiko aroa

Nun-nahi ematen dira «Paxioneak» eta, asko fededunen biltzar handitan, ikusgarri baten bidez dituzte zabaltzen ibili langaien erakaspenak.

Itxura guzien arabera, frantses «mixterioa» eta eskuarazkoa pastora-la dira iturri beretik. Ez baitu horrek erran nahi elgar iduriak direla. Eskualdunek daukagu pastoraletan «gureki» zerbait.

Ezagutzen ditugu ehun bat pastorala eta heien idazle parrasta bat.

Ziberoa da pastoralaren hazitei bakarra eta, naski, pastorala, Biarnotik zen sartu Ziberorat.

Pastoralak dira hiru ereinalditatik.

1° Apez pastoralak:

Hola deituko ditugu, hastapen ezagutu gabetik eta XVII. mende bururatzearainoko pastoralak. Horien idazle gehienak dira: Apezkiak... Horien mamia: Erlijioneko erakaspenak.

2° Laikoen pastoralak:

Haukien aldia doa XVII. mendearen bururatzetik eta, XIX. medea-ren erditsuraino.

Antzerki zikin batzuegatik, Frantziako Elizkargudunek, antzerkitza guzia zuten, XVII, mendean, edo arbuiatu edo debekatu. Hortako ziren apezak gelditu pastora-la idaztetik eta hetarat joaitetik.

Zorionez, laikoez ordaindu zituzten apezak... Laikoez, erlijionezko gaiak pixka bat bazterturik, pastoralen sustraia bilduko dute bereziki gertakari zaharretan, alegiazko kondairetan, salatze gezurretan.

3° Oraiko pastoralak:

Hola deitzen ditugu azken ehun urte hautakoak.

Bazter gertakariak dute ibiltzen edergintza guzian eta beraz ere antzertiaren harat-hunata.

1900. urteko ingurutan, Frantziako gobernuak nahi izan zuten eskuara debekatu katiximan eta elizako predikuetan. Horrengatik, berpiztu zen apezetan pastoralen alderako suhartasuna... Ordutik sortu da ere pastoraletan sentimendu berri bat: Eskual abertzaletasuna.

Oraiko egunean, pastora-la beti bizi da... Eta bizi delakotz, molde zahar batzu bestelakatzeko ausartzia hartzen du, bai eta bide arras berri batzueri lotzekoa.

Gure idruiko, pastoralak iraunen du, eskualdunak iraunen duen bezenbat... Dena da ean Eskualdunak aski bertutedun izanen giren, eskualdunak beiratzeko.

II) ORAIKO ANTZERTIA

Ez ditut hemen aipatuko, bereziki hogoi bat urte hautan, Eskualdun Gazteriak, dela plazetan, dela karrosa loratuen gainetik, eman dituen antzerki labur eta berdin, luze eta ederrak. Ez eta ere gure operak. Bainan aipatuko ditut bakarrik antzokitako taulen gainetik emaitako idatzi antzerkiak.



MUGAZ BESTALDEAN

Ez dakigu segurki noiz eta nun hasi ziren eskuarazko antzerkien emaiten. Dakiguna da 1764ean, Bergarako jauregian, jokatu zutela antzerki bat, erdi eskuaraz eta erdi espainolez idatzia, «El borracho burlado» goi-izendatua.

Gero, abantxu mende batez, ixilik dagotzi taula-gainak. Noizbait, 1876an, Ziburun, hunarat ihesi etorri Karlixta zonbaitek, muntatu zuten «Iriyarena» izeneko, antzerki labur bat... Hunen emaile ziren, beste antzerlarien artean, Soroa (30 urte) eta Alzaga (15 urte)... Hauk biek zuten, beren etxerat itzuli-eta, zabaldu eta osasundu gure antzertia.

Marcelino Soroak (1848-1902) bere ikaskintzak egin zituen Valladoliden, auzilan ofizioan sartzeko. Bainan, desterrua pairatu ondoan, erakasle jarri zen Donostiako ikastetxe batean.

Gizon bat zen omere onekoa eta lagunkina.

Hunen eskutik baditugu 15 bat antzerki... Hautarik bat «Anton Kaiku», frantses «Farce du maître Patelin»-etik eskuaratua, Soroak igorri zioten bere sinadurarekin, Victor Hugo eta Mistraleri. Bienganik ukan zuen errepostu maitagarri bat.

Soroaren antzerkiak dira goratasun gutikoak, nornahiren heinekoak, irri zabal nasai bat botatzekoak...

Toribio Alzaga (1861-1941), besterik dugu. Frantzian egin zituen bere ikaskintzak. Bere sort-hiri Donostirat itzuli-eta, lekuko buruzagiek eman zioten eskuara erakaslego kargua.

Antzerkintzan iragan du bere bizi guzia. Selauru batean zuen bere lantokia, laguntzale zituela bere emazte-alabak.

Langile gaitza zen, erakasle ona, pixka bat lanoetan bizi.

Utzi dauzkigu 30 bat antzerki eta hiru opera. «Irritza» goi-izenarekin, «Macbeth» eskuararat itzuli zuen eta itzulpen hori galdatu zioten Angleterratik, «Departement of Printed Books, British Museum»-ako.

Alzaga dugu Soroa baino zonbait mailez goragoko antzerkidazlea... Bere antzerkiak ditu zintzoki eraikiak, lehunki orraztatuak.

Bi handi hauiek abiaturik, gaitzeko su eta zabaldua hartu zuen eskual antzerkintzak... Erran behar da abertzaletasunak hanitz buhatu zuela.

Manterolak atera zuen «Euskal-Eria» agerkaria, laguntzale zituela: Etxegarai, Oloriz, Arantzadi, Kanpion, Arana-Goiri... Agerkari horreki zabaldu ditu antzerki asko. Jada 1925ean, Jose Aranek ezagutarazten ditu 200 antzerki, beren goi-izen eta idazien deiturarekin. Zorigaitzez Manteola hil zen 34 urtetan.

1932an, Tolosar Antonio Labayen jaunak (oraino bizi da) atera zuen «Euskal-antzerki» agerkaria, Manterolak hasi lanaren segitzeko... Agerkari hunek iraun du 1936-ko odol-ixurketa artio (54 lumero edo alde).

Urte hetan, nun-nahi sortu ziren antzerlari-talde edo multzoak (Lau, Donostian bakarrik). Antzerlari batzu ere, oroz ezigutuak. Ala nola: Pepe Artola.

Antzerkiak ziren mota guzikotarik eta heien idazleak ausarki. Huna zonbaiten izenak: Abelino Barriola, Garitaonandia apezka, Elizondo, Catalina de Eleizegui.

Ez dugu erran beharrik, antzerki horiek direla balioz desberdin.

1936ko nahasmenduan, antzerkilari horietarik gehienak izan ziren hilak, desterratuak edo preso altxatuak. Eskual-antzerkia ixildu zen, ez gizonak ez zutelakotz deus erraitekorik, bainan erran-nahiak ezin zabaldu zituztelakotz. A zer obrak ez ote dira sortu gabe egon, gizonak ez zutelakotz golkoan zutenaren agertzeko baimenik!

Bizkitartean, bizirik ateratu antzerkilariak emeki beren etxetarat itzuli ziren eta berritx lanari lotu, langaitzat hartuz debekatuak ez ziren alorrek.

Aita Zaitegui Jesuitak Grekoen lehengo antzerki aipatu batzu eskuararat bihurtu ditu.

Nemesio Etxanizek, erlijioneari galdatu dio bere goihatsa.

Manuel Ziarsolo, alhatu da saila espantagarrietan.

Agustin Zubikarai, Jose Antonio Arkotxa, Antonio Labayenek iker-tu dute gizonen egun guzitako bizitza.

Kepa Sarriegui eta Eusebio Erkiaga ari izan zaizku bereziki baserritarrez.

Jon Etxaidek alegaratu gaitu bere omere bereziaz.

Orotan berriroz sortu dira antzerlari multzoak, antzerki sariketak.

MUGAZ HUNAINDIAN

Duela zonbait urte, hemen berean agertu izan dut lan bat, eskualde huntako antzertiaz. Orduan idatzia, ez ditut errepikatuko... Osatuko baizik.

Duela berrogoi bat urte hasi ginen, gure eskualdean lehen antzerkien emaiten.

Ordu artio ez ginuen antzokirik, salbu Baionan... Orduan altxatu baitziren lehen zinema-lekuak, zinemarekin sartu zen jendetan, ikusgarrietarat joaiteko gogoia eta plazerra.

Senperen, 1921ean, Barbier erreter eskualtzaleak moldaturik, emana izan da, eskualde huntan, lehen eskuarazko antzerkia...



Gero lotu ziren antzerkintzari, Hazparne eta Donibane-Lohizune. Oraiko egunean, antzerlariak badira nun-nahi eta antzerkiek edozoin herritan emaiten dira.

Jada aipatu dudan artikuluan, agertu ditut hemen gaindiko antzerki egileen izen eta obrak... Hogoita-hamar bat idazle bagira eta gure obrak, berreunetik goiti dira.

Gure antzerki ikusliarrak, gero ta gehiago dira ederraz gose eta ederra zer den ohartuak... Gutxiago dira «gidarien» beharretan, jakiteko noiz eskuak jo, noiz irri edo nigar egin.

Gazte nintzalarik, antzotegi batean ikusi izan dut gizon bat, makila luze bat eskuan, hartaz jotzen zituela ikusliar arraboslari lotsagabeak.

Orroitz nize ere, antzerki baten erdian, entzunik herriko jaun erretora, beharien artetik oihu egiten antzerlari bati: «Jan Piarre. mintza-adi azkar-txago. Ez hauku entzuten!». Eta Jan Piarrek, taula gainetik erreputa: «Erkastua nuzu, jaun erretora».

Gure antzerlari lehen multzoak ziren bakarrik gaztez, eta, edo mutil hutsez, edo neskatxa hutsez, muntatuak. Hola zen apezpikutegiko manua, apezzen meneko ziren taldeentzat.

Geroztik, manu hori guritu eta ezeztatu da... Adinekoak ere lotu dira antzezlari ofizioari. Hola, antzerki lana egin baititake zintzoago eta aberatsago.

Bestalde, 1945. urteko ingurutan, izan ginuen borrokatze bat antzerkilarien artean. Huna zertaz: Idazle batzuek, beti gai bertsua zuten hartzen beren idatzitan: Taulen gainean ezartzen zituzten Eskualdun adineko batzu, arrunt aldrebes frantximentez mintzatzen zirenak, eta heien ez jakinaz, zuten behariek irri egiten.

Gazteen begitan, antzerki horien medioz, Eskualdun bat, den gizonena, ez bazen erdaraz mintzo, irakutsia zen norbait gibelatu eta zozo balitz bezala.

Holako antzerkiek ez zituzten eskuara eta eskualdunago laguntzen, baina gutiesten.

Lapin multxo bat, gai horieri bihurtu ginen eta, oraiko egunean, ez da gehiago holakorik agertzen.

Borrokatze horren ondotik, beste bat ere izan ginuen.

Urte hartan, gure eskualdean, nihaurre buru, muntatu ginuen antzerlari multzoen arteko zoin-nausi bat.

Gure hitzarkiak ziren, talde bakotzak beharko zuela eman edozoin obra, oren erditsu batez, apaindura gabeko taula-gainean.

Hemezortzi taldek parte hartu zuten partida hortan. Donibane-Lohizunen baiginen azken aintzineko taria, frango minki hor kasailatu ginen.

Donibanen beraz, leku bereko taldeak eman zuen antzerkitxo bat, taula gainaz, eskual sukalde zahar bat eginek, erakusten zituela aitatzko amatxo batzu, lehengo moldetan arropatuak.

Heien ondotik, Miarritzeko taldea agertu zen, galtza motxetan eta udako arropa arinetan... Arras oraikotar egiten zuten zuten aire arrunt batekin.

Ikusliar anitzek ez zuten dudarik, lehen saria joanen zela Donibandar «egiazko Eskualduneri».

Bizkitartean, Dassance-Lafitte jaunek eta heien jujari lagunak, Miarritzarrak zituzten izendatu xapeldun.

Dautzet izan zela ziztu, kalapita eta kazetetan artikulua.

Gertakari horrek ondorioztat izan zuen, aintz Eskualdun konprentitu zutela eskualdunago ez dela zahar goxokeria bat, baina oraikotz eta gerokotz on den bizigailu sano bat.

Lehen ez bezalako aro bat da gure oraiko antzerkietan. Edozoin erdal-antzerkietzat bezala, gai eta presuna mota guztiak onartuak dira: Apez, serora, auzapez, kargudun oro..., Berdin, entzuten dira jende beltzak edo arabak eskuaraz solas egiten, hortaz nehor axolatu gabe.

Gure antzerkia da beste mintzairerako antzerkien maila berean eza-ria. Ez da gutiatsia eskuaraz delakotz, ez eta baitezpada goretsia... Bere mamia-arentzat da jujatua, mintzairerentzat baino gehiago... Seinale ona da hori... Gure eskuara, beste edozoin hizkuntzen parean emana delako seinala.

ORAIKO EGUNEAN

Oraiko egunean, gure antzertia osasun onean daukagu. Nun-nahi taldeak ari dira lanean. Antzerkilarien arteko sariketak badira frango usu... Antzerki idazle berri batzu ari dira ateratzen: Aresti, Garmendia, Ugalde, Minaberry anderea, Landart, Pagola eta beste...

Berriketan, Antonio Labayen jaunak liburu bat espainolez, agertu du eskual antzertiaz... Eta bigarren baten agertzerat doa.

Iragan buruilean, Toribio Alzagaren urtemugakari, hiru aratsez mintzaldiak izan dira eskual antzerkiaz, Donostiako Herriko-etxe zaharrean... Lehenean mintzatu da Eperre jaun kalonjea, bigarrenean: Zubikarai, hirugarrenean: Labayen.



Iñaki Behobide hartuz buruzagitzat, zazpi Probintzietako antzerkilariek muntatu dute batasun bat, elgar ezagutzeko eta laguntzeko.

Nehoiz ez bezala, mugaren gainetik elgarri pasatzen ditugu antzerkiak.

Ahatik bada oraino zer egin, taldean erabiltzailen moldatzeko, taulagainen apaintzen ikasteko, multzoen herritik-herrirat eta Probintzia batek besterat joan-arazteko, ofiziale liezken antzerlari-talde baten muntatzeko eta abar.

Gero eta maizago, gure antzerlariak jokatzeko dituzte beste mintzairerarik eskuaratu antzerkiak... Noiz ote daukute ohore bera, beste mintzairerak ordainduko?

AZKEN OHARMEN BAT

Lerro hau idatzi ditut, izan daitezen argigailu ez dakitenentzat, goresmen eskual jakintzaren alde, eta urraskada batzu gure antzerkintza-
ren ikertzaientzat.

Ordu litake ere, mugaz bestaldeko norbaitek argitara balitza horko radioteiez eta zinemas egin izan diren eskual-lanak... Gure aldetik, beste hoinbeste azalduz, orroigarri lakat batzu sala ditzagun gure ondorengo-
rriko direneri.

(Gure Herria, 1966, 209-217)

P. BROUSSAIN-EN OMENALDIKO PREDIKUA

Gristino maiteak,

Gaurko Ebanjelioan, Artzain-Ona dela-ta, Jesus mintzo zauku zer-bait buruzagitzat dugun guzietan: Herri-gizon, Eliza-gizon, Lantegi-buru, Haur-eskolatzaile eta bertze. Orori derauku, gure gomendio ditugunak behar ditugula maitatu; gure menekoenganik hurbil biziz, bihotzez-bihotz eta errexi konpreni dezaketen hizkuntzaz heiekin kurutzatuz.

Munduko gizon guzien haurride gira eta deneri zor diotegu anaitasuna. Baina nola ditzakegu urrunekoak maitatu, ez baditugu lehenik maitatzen etxeak eta ingurukoak? Nolaz ditzakegu maitatu Afrikako jende beltzak, Asiako horiak, populu guzitako eta arraza guzitako jendeak, ez baditugu maitatzen gure populu eta arrazako Eskualdunak?

Jesusek etsenplua eman dauku: Gizon guzien haurride sortu da, gizon guzientzat hil izan da, gizon guzientzat eraike du bere Eliza bakarra, bainan judu semea baitzen, bere judu populuarekin atxikia izan da errotik.

Ehun bat urte zen, Jesus sortu zelarik, Erromanoak jabetuak zirela Juduen lurrez. Erromano enperadoreak aski abilak izan ziren Judueri ez kentzeko beren esku guziak, bainan heieri uzteko beren gisako autonomia. Erromanoek osoki beren peko beiratu zituzten armada, zergen biltzea, justiziako auzi larrienak, bereziki hiltzera kondenatzeko eskubidea. Bainan Juduek bazuten baimena beren erlijioa praktikatzeko beren gisara, bai eta ere beren herrietako zereginak erabiltzeko beren ohidureri jarraikiz. Erran gabe doa Juduen urratsak hurbiletik barrandatzeko zituztela Erromanoek.

Nola Juduek jasaten ote zituzten Erromano zapaltzaile horiek?

Juduen artean bazen orotarik. Baziren neholaz ere onartzen ez zituztenak Erromanoen zapalkuntza eta legea: armaz jazartzen zirenak Erromano soldadoeri. Badakigu noizean behinka sarraskiak eta hiltzeak gertatzen zirela Judu oldartu horien eta kanpotar etsaiaren artean.

Borrokatzaile horietaz bertzalde, baziren Juduak autonomiaren uztarrria onartzen zutenak, edo bederen jasaten ezinbertze bat bezala.

Azkenik baziren Juduak etsaiekin eskuz-esku zabiltzanak, haren fagoren diru eta ohore onik biltzen baitzuten.



Horra nolako kartalarien erdian Jesusek joan duen bere artzain bizi-tea. Eta orai ikus dezagun nola ihardoki duen gisa hortako ingurumenari.

Lehenik, ikusten duguna da, Jesus ez dela egon bere ingurumenetik baztertua bere baitako komentu hetsi batean sartua. Jendekina zen, jendeekin bizi, partehartuz heien ezteietako zorionetan, heriotzetako dolu-minetan, osasunez gabetuen pairamenetan, langabe zirenen ilunduretan. Beraz Jesus izan da egiazko artzaina, bere ardietarik arras hurbil bizi zena.

Bigarrenekorik, Jesus ez da izan norbait ilaun, jendeen arteko auzitan beldurti, galde garbieri iheska erepostu emaile. Ez, bere artaldearen-tzat izan da Bide-erakusle fermu, Egerraile garbi, Argi-emaile zorrotz.

Hirugarrenekorik, artzain onak berdin maite ditu bere ardi guziak, baina arta berezi bat hartzen du bildotsez, ardi herrestez, ahulez, herbailez eta holako. Holakoa izan da Jesusen jokabidea. Goxoki hartu ditu haur ttipiak, eriak, emazte bekatorosak, bihotz zaurituak, behartu mota guziak. Ez da nehun ageri Ebanjelioan Jesusek gaizkitu duela jende horietarik nehor.

Laugarrenekorik, Jesus izan da artzain bat osoki herrikoia. Ez hari galda bere herritarrei mintza zadien latinez edo grekoz, orduko bi arrotz mintzaira ofizialez: Aramearrez mintzo zen. Bizkitartean orduan aramearrez mintzo zirenak, gaur eskuaraz mintzo girenak baino gutiago ziren.

Herrikoia baitzen ez ditu nehoiz kondenatu edo gaizkitu herriaren alde borroka ari zirenak; ez-eta armaz borroka ari zirenak ere. Ez du nehoiz herritarrik salatu edo saldu Erromanoei. Ez du nehoiz Judahik erosi, berak eskua gordez, halako bati harria aurtikarazteko.

Herrikoia baitzen, bortizki salatu ditu populuari eta kondenatu herri-jale eta saltzale ziren bere denborako handi-mandi batzu: bi Herodes, Juduen erregeak, bi anai: lehenak hilarazi zituen Betelemeko haur hobengabeak: bigarrenak lepoa motzarazi zion Jondoni Joanes Batistari. Biak ziren Erromanoei salduan, heien zerbitzari leial, zakur handiak.

Jesusen ahotik atera diren hitz gogorrenak izan dira, Jainkoaren ize-nean Judu populua xurgatzen eta lehertua atxikitzen zuten Jauneria aberats eta honekin eskuz-esku zabilan Apezeriaren kontra: «Zuek fartzuntziak, hil-hobien idurikoak zirezte, kanpo eder, baina barnez ustelak! Zuek aberatsa.... kamelu bat “orratz-zilotik” sartuko da, zuek zeruan sartuko zirezte baino errexkiago».

Hola mintzatu da, «bihotzez umil eta ezti dela» beretzat erran izan duen Jesus, gizon guzien artzaina; ez boteredun, dirudun eta jakintsun

bere ardi guzien lehertzeko egina, baina horien guzien konbertitzeko, ez dituen gal betierekotzat.

Ez zituen ahatik Jesusen predikuak biligarro heiek bihotz-berritu: Judu-tarteko Norbaiteriak gezurrezko propagandaz populuari burua muntatu zuen Jesusen kontra eta Jesus auzitarat ereman zuten Pontzio Pilatus Erromano gobernadorearen aintzineran, huni oihukatuz Jesus zela gaur erran ginezaken bezala «separatista» bat: Judu populua nahi zuela Zesar-en menpetik atera eta beregain jarri. Pilatus izitu zen, salakuntza horrek Zesar-enganik ekar lezakion ondorioengatik. Horra nola, Lehen-burua zerbitzatzeko, handi-mandi horiek guziek, ez izanik ere nazione bereko, ez erlijione, ez ofizio bereko, elkar aditu zuten Jesus hilarazteko.

Eta gaur uste duzue gauzak bertzela doatzila? — Itsua eta gezurtia behar laike izan gaurko gure mundua ez dela holakotsua ukatzeko. Behin eta berriz oroit gaiten mundueriak Jesus hola tratatu balin badu, ez gaituela gu, haren zerbitzariak hobeki tratatuko. Guri da, traba guziengatik, Jainkoa dugula lagun, beti «jo aitzinal» egitea, gure munduari ekartzen diogula argia, bizia eta altxagarria.

Eta ez gaiten izan beldurti; Jesusekin eta Jesusek bezala, guk dugu mundua bentzutuko eta ez munduak gu. Zeren eta azken jujamenduan, mundutiar handi-mandi horiek guziek ez dute, lehengo Hazpandarrek zioten bezala «pipa baten tabakoa» balioko.

Nik ez dut ezagutu gaur omenalditzen dugun Broussain zena, Hazparneko auzapez izana. Baina balioko du segur meza hunen ondotik, hartaz eginen diren hitzaldien entzutea. Hainitz ikasiko dugu zer gisaz auzapez horrek, berak jakinean edo ezjakinean Ebanjelioari jarraikiz duen Eskualdun populua zerbitzatu.

Itsas hegitiak jin nautzue, hango ur gaziak fede epeleko sada batzu piztuko ditudalakoan. Nik nere gatza aurtiki dut. Jainkoak lagun gaitzala gure fedea gostuz hobeagotzen, guharen eta bertzen onetan! Amen.

Hazparneko elizan (16/04/1978)



NERE HIL-MEZAKO MINTZALDIA

(Roger IDIART-ek irakurtzeko)

Haurride maiteak,

Hemen zarezte, azken aldikotz, nere gorputzaren inguruan bilduak. Deneri nere esker onak zuen laguntasun eta laguntzagatik.

Lehen lehenik eskerrak Jainkoari, ororen gainetik, lagundu bainau gure sinesmena azkar eukitzen. Erran gabe doa, sinesmen edo fede hori zerbitzatu ondoan, hortan fermu hil naizela. Pentsa zazue ahatik, haurride maiteak, fedezko-bizia dela borroka-bizia eta hortakotz nere bizi guzia borrokan ereman dutala. Momento huntan, jada Jainkoak jutatua bainau eta agian Jondoni Paulok dion bezala «ongi» lasterkaturik, saristatua izan bainaiz, badakit eta pozturik nagoke, ez naizela eta ez nautela enganatu.

Agian, zuetarik bakoitzak egun batez, gauza bera erraten ahalko du.

Milesker beraz Jainko onari, ni baitan sortu eta azkarrik atxiki duen fedearentzat.

Milesker ere, nere Azkaingo familiari eta Zokoan, nere etxean bizi direneri. Jainkoak ematen du fedearen hazia, bainan ingurumenak du laguntzen hazi hori goratzen. Jainkoaren ondotik, naizen guzia eta dutan guzia, zor diot lehen-lehenik, nere familiari, nere Azkaineko familiak, betidanik etsenplu eder bat eman du. Gure etxean, zahar-gazteak beti elkar lagundu dugu eta ongi elkar aditu. Ez dugu samurtzerik izan, ez-eta partimenen egiteko ere. Galdetzen diotet nere etxekoeri atxik dezaten, orai artio bezata, elkar maitatzeko eta laguntzeko duten usaia.

Pobreki bizi ondoan, pobreki hil bainaiz, ez dut deus ontasunik emateko nehoi. Nere etxeko maiteak, beti elkar lagunt eta maite zazue, kontseilu hori obratuz, aberastuko zarezte mila aldiz segurago, nere eskutik ukan zinezaketenaz baino.

Milesker oraino nere adixkide eta lagun guzietan, bereziki zueri, Zokotar maiteak. Bihotzez bat egin dugu, lur huntan zuen artean bizi nintzeno. Badakigu amodioaren lokarriak ez direla hausten heriotzearekin... Azkartzen baizik... Gauden orroitzapenez eta otoitzez elkarri tinki lotuak, gure Jainkoak berritz denak elkartuko gaituen artio.

Nere milesker berezia eliza huntako lanetan lagundu izan nauten guzietan, dela katixima egiten, dela eske edo irakurtzeak, dela eliza garbitzen edo apaintzen dela elizkizunak kantu-musikaz edertzen. Orroiti gaiten, harrizko gorputzaz bertalde, elizak baduela bere arima, Arima hori

moldatzen eta sano atxikitzen, behar dugula lagundu girixtino guziek. Bakotzak bete dezagun eginbide hori gure ahalaren arabera.

Nere bihotz guziaz ere agur, nere inguruan zarezten apez adixkide eta lagunerik. Maite zauztet. Bizi nintzeno beti entseiatu naiz zueri deneri «ongi etorri» egiterat, deus berexkuntzarik gabe. Hori da Jesusen nahia: «Denek BAT egin dezagun».

Bainan BATASUNA ez da BERDINTASUNA. Behar dugu onartu apezan jokabideak izan ditezkeela desberdinak. Batzu gira erretor, bertze batzu eskolemaile, bertze batzu misionest. Gure adinak, lanak, sentimenduak, kezkek ez dira berdinak bainan, bide desberdinean gainetik, Jesusek gomitatzen gaitu bihotzez BAT egiterat.

Batasun hori azkartzen dugu Ebanjelioari eta Elizaren erakaspen nausieri hurbildik jarraikiz.

Denek ongi ezagutzen ditugu Ebanjelioaren erakaspenak. Bainan berdin ongi ezagutzen ote ditugu Elizaren erakaspen nausiak? Erakaspen horiek aurkitzen ditugu Elizak zabaldu eta zabaltzen dituen gutun orokorretan.

Gaurko munduaren aho-mihitan, bi eskubide usu aipatuak dira: GIZONAREN ESKUBIDEAK eta POPULUEN ESKUBIDEAK. Eliza ezin da ixilik egon eta ez dago ixilik eskubide horietaz. Lekuko hori ditugu: *Mater eta Magistra, Pacem in Terris, Populorum Progressio*, eta bertze Elizaren mezu handi batzu.

Nere beldurra da ez ote diren Elizgidari batzu, arras axaletik mintzo erakaspen premiatsu horietaz edo, berdin ere, horien kontra. Apez gaze nintzelarik gauza bera gertatu zen «Rerum Novarum» eta «Quadragesimo Anno» sozial gutun famatuekin. Urteak iragan dira, bereziki Euskal Herrian, horiek aipatu ere gabe. Anartean Satanen indarrak ez zagozin lo. Hek zituzten zabaldu Elizaren erakaspenak, bainan zimendua aldatu. Ez gaiten gaur huts beretan eror.

Aski goiz mugit gaiten, aro edo ez aro, Elizak zer dion jakinarazteko «Gizonaren eta Populuen eskubidez». Gure jendea minbera da ikasi nahiz zintzoki eta artoski Elizak zer ote dion xuxen bi pondu horietaz. Hanbat gaxto guretzat, ez badiotegu gure girixtinoeri zerbitzatzen «gure Argia». Bertze batzuek, orai bezala, eskainiko diote «beren argia» mundukeriz saltatua. Zorigaitzez gure mintzoa, askoren beharritar beransko edo berantegi helduko da, jada kaltea eginga baita.

Orroiti gaiten ere, gaurko munduan, arrabots pixka bat egin dezaken erakaspen bat zabaltzeko, gizon bakar baten botzak, arras guti balio duela. Fedexaleek ikas dezagun, fedegabeak bezala elkartzen, hortakotz behar



diren dirua, tresnak eta erakundeak muntatzen, gure boza ez dadin izan joarexka bat, baina ezkila burrundari bat. Hortarakotz ez ginuke bakarrik elkartu behar Euskadiko girixtino buruzagiek, baina minoria diren populuetakoa girixtinoek.

Gaur gure Euskal-Herria eri dugula, nork uka dezake? Eri, gaxo, bere erlijione, politika eta ekonomian. Egiazko mirikuak, ikusten duela gorpuz bat karramintzez betea, miazten du non ditek horien iturria eta iturri hura artatzen du. Gauza bera egin behar ginuke gaur euskaldun populuak pairatzen dituen minen sendatzeko. Laster ohart gintazke, gaur, gure populua dela, laparrez tratatua den ardia bezala. Ez du libertaterik. Urrun gira Elizaren erakaspenetarik. Horiek diote, populu guziek behar luketela izan berdin libro eta anaitasunean bizi. Gehiago dena, izan dira eta badira Eliz-gidarietan, Euskal populuari traba horiek eman diozkatenak eta eman nahi liozkatena, Kristoren eta hartan dugun Fedearen ize-nean. Ez da harritzeko, azken denbora hautan, asko fededun oldartu baitira holako erakaspen emaileen kontra eta baztertu baitira Elizatik.

Kontuz mintza gaiten, Ebanjelio eta Elizaren izenean mintzo girelarik. Gaur predikari guziek, ados behar ginuke izan, Sei puntu hauk zabal-tzeko:

I) Elizaren ikuspena dela:

- a) Populu bakotzak ukan dezala beregaintasuna.
- b) Populu guziak izan ditela elkarri anaitasunez josiak.

II) Indarkeria haizu dela, baina bakezko bide guziak entseiatu ondoan, ikusten bada, ez dela bertze salbabiderik. Ez da Elizari jujatzea, baina gizoneri, noiz den borroka armatuan sartzeko ordua. Gizonen jujamenduak desberdinak izan liezkela, behar dugu onartu.

III) Indarkeria baliatu behar dela beti onerako, sekulan gaizkirako. (Sekulan ez, zapalkuntza, nausikeria eta berekoikeriaren alde. Beti zapal-duen, heien askatzearen eta denen egoera hobetzearen alde). Puntu hun-tan ere, Eliza izan dadiela argi emaile, baina ez jujari.

IV) Bakotzak eginbide duela bere populua zerbitzatzea (Kultura, politika, bertze edozer aldetik). Errespetatu behar duela bere lagunak hautatu duen zerbitzatzeko moldea (izan dadin guriago edo gogorrago-koa). Artzain onari, haizu ez zaiona da bakarrik, bere ardien etsai bilaka-tzea edo hetarik baztertuz bizitzea.

V) Eginbide dugula lan egitea Eliza barnetik, hartan harri bizi bat izanez, lokartu gabe, baztertu eta horren kontra oldartu gabe.

VI) Elizako buruzagiek badituztela beren hutsak eta itzalak, berezi-ki Euskal Populuari buruz. Horiek behar dira aitortu eta ahalaz errepara-

tu: Eliza izan dadin, ez DENA, baina IZAN BEHAR LUKEENA... Gutixago mundutiar eta gehiago zerutiar.

Horra, haurride maiteak, nolakoa izan den nere jokabidea eta nola-koa den nere ikuspidea gaur gure Euskaldun Populuak bizi dituen gora-beheretan.

Bertzerik gabe deneri daitzuet: Egun On eta Bizitze On. Berritz Elkar Ikusi Arte. AMEN.

(Hitzaldi hau egin nuen 1979-ko Buruila. Nahi dut irakurtua izan dadin nere hortzetan, bertzerik gabe. P.L.)

(Enbata, 1988ko urtarrila)